



## Herri-lurretan baratzeak lantzen hasi dira herritarrak Donezteben

→ 4-5

AZAROAREN 18, 24 ETA 26AN



## Azaroko hitzordu haundiak Doneztebe, Lesaka eta Goizuetan

Doneztebeko feriak azaroaren 18an eginen dituzte eta Lesakan egun haundia azaroaren 24an izanen da, nahiz eta bezperatik ekitaldiak izanen diren. Donezteben, feria egunean jokatuko dute Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketa, eta jaialdi berean, Nafarroako II. Mailako Arpana Txapelketa eginen dute. Lesakan, berriz, Bortzirietako azindariak onenak sarituko dituzte. Goizuetan azaroaren 26an ospatuko duteazienda, artisauek eta nekazaritzaren feria. → 11-19



**Ainara FRESNEDA** | Ibon Fernandez presoaren bikotekidea  
«Askatasuna lortzeko aukerak mobilizazio eta gizarte aktibaziotik etorriko dira»

Esklerosi anizkoitza duen Ibon Fernandez Iradi presoaren nekaloguna da Ainara Fresneda Etxeberria lesakarra. Frantziako Lannemezango espetxean dago Ibon eta gaixotasuna espetxeko baldintzetan jasan behar izateak atzerazekin diren ondorioak ekarri dizkiola azaldu digu lesakarrak.

ELKARRIZKETA → 3

ZOKKETAK → 51



Txartela egiteko deitu  
**948 63 54 58ra** edo idatzi  
**info@ttipi.eus** helbidera.

# TEEHen BIRZIKLAPENARI BURUZKO ERAKUSLEIHOen III LEHIAKETA

## RACE INVADERS



### TEEHak\* gurea inbaditzen ari dira

\*TEEH: Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak



Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabili itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak.

Argibideak zure mankomunitatean:

- Alto Araxes (T. 948 513 087)
- Baztan: [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) (T. 948 580 006)
- Bortziriak: [www.bortziriakzabor.com](http://www.bortziriakzabor.com) (T. 948 635 254)
- Malerreka: [www.malerrekakomankomunitatea.eus](http://www.malerrekakomankomunitatea.eus) (T. 948 451 746)
- Mendialdea: [www.mendialdea.eus](http://www.mendialdea.eus) (T. 948 510 444)



## HAI EK BIRZIKLATZEN LAGUNDUZ, partida irabaziko dugu!

Honako hauen ekimena da



Laguntzaileak

Informazio gehiago



## Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



### Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



#### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

#### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

#### IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa



Frantziako eta Espainiako presondegiatan 370 euskal preso politiko daude gaur egun. Horiatarik hamarrek eritasun larriak dituzte. Tartean dago Ibon Fernandez Iradi. 13 urte

daramatza Frantzian preso eta gaur egun Lannemezango presondegian dago. Urrian Donostian egin zen bezala, beraien askatzea eskatuz, azaroaren 19an manifestazioa

eginen da Baionan, 17:00etan Euskaldunen Plazatik abiatuta. Hitzorduaren aitzinetik, Ibonen neskalaguna den Lesakako Ainara Fresneda Etxeberriarekin izan gara.

**Ainara FRESNEDA ETXEBERRIA** | Larri gaixorik dagoen Ibon Fernandez Iradi presoaren neskalaguna

# «Larri gaixorik dauden presoak askatzeko giltza gizarteak dauka»

**G. PIKABEA** | LESAKA

## Esklerosi anizkoitza du Ibonek. Zer moduz dago?

Ibon Lannemezango espetxean dago, Frantzian, eta espetxean egonik gaixotu zen esklerosi anizkoitzarekin. Gai xotasuna espetxeko baldintzetan jasan behar izateak dagoeneko atzerazinak diren ondorioak ekarri dizkio, erraterako, gorputzaren ezker alde guztian oinazea izan eta ikutuaren sentzazioa aldatua dauka. Zoritxarrez, ez dira, ordea, sintoma bakarrak: neke fisiko handia izaten du, gorputzeko dardara... Beraz, egunerokoan ahal bezala kudeatzen du hori, kontuan izanik espetxean ez direla ematen horrelako gaixotasun bat artatzeko baldintza minimoak.

## Nolako bilakaera izan du gaixotasunak?

Bada iada kasik 6 urte badira Ibon gaixotu zela, eta gaixotasunak bere bidea egin du. Jasan dituen broteetan, bi bereziki bortitzak suertatu zitzaizkion, eta horren ondorioz, bi epealdi pasatu ditu gurpildun aulkian. Hasieran, gainera, ez zuten atera mediku azterketak egitera, eta gurpildun aulkian gelditu zen, zer zeukan edo zergatia jakin gabe. Azkenik, gaixotasuna hazi eta bi urtetara eman zituen diagnostiko definitiboa. Brote bakoitza-



Ainara Fresneda, Lizar eta Arri semeekin.

ARGAZKIA: A. AROTZENA

ren ondotik, errehabilitazio maila bat egoten da, baina geroz eta tikiagoa dena. Brote horiek izateak, beraz, ondorioak izaten ditu, Ibonen kasuan gertatu den bezala.

## Eta animo aldetik, zer moduz dago?

Berak beti erran digu egoerari aurre eginen diola, baina noski, bai bera, bai gu ere, konturatzeko gara egoeraren larritasunaz. Badakigu urte hauetan egoera hagitz zailak baldintza penagarrietan jasan behar izatea tokatu zaiola. Orain epaiketari begira, egunerokoan murgildua dagoela erraten digu, etorkizunera ez dela proiektatzen, eta erabakia jasotzen duenean, orduan

## EPAIKETAREN ESPEROAN

«Epaiketa azaroaren 24an izanen da. Epaia azkar ematekotan ere hilabete beranduago emanen dute guttinez. Denbora aunitz daramakigu Ibonen askatasunaren esperoan eta, noski, guk bere askatasuna bertzerik ez dugu espero. Egia da orain arte epaiek, zoritxarrez, kontrako erabakiak irenstera ohitu gaituztela, baina Ibon askatzeko arrazoiak sendoak dira, denbora aitzinera doan neurrian geroz eta sendoagoak».

kokatuko dela etortzen denearen aitzinean. Hau ulertzeko kontuan izan behar da badirela kasik lau urte gaixotasuna dela eta, zigorraren suspentsioa eskatu zuela. Denbora aunitz da, eta azken epaien erabakia negatiboa izan zenez, espetxeak diren zulo beltzetan egoera hauei aurre egiteko modu bat da.

## Eta zuek, familia, nola zaudete?

Min handia sentitzen dugu, Ibonek aspalditik egon behar zuelako aske, baina ezin dugu uka esperantza eta urduritasunaren arteko nahasketa batekin bizi dugula momentu hau. Jokoan aunitz dugu, erabakia zentzu batekoa izan edo

bertzekoa izan, dena aldatzen baita guretzat. Epailleek egoera eta arrazoiei ikuspegi objektibo batekin eutsiko baliote, Ibon aske utzi beharko lukete. Aske artatze ego kiago bat izateko, esklerosia gaitz kronikoa denez, betirako izanen baitu Ibonek. Aske utziko ez balute, Ibon ahalik eta azkarren guztiz elbarri bilakatzera kondenatu nahi dutela erran nahiko luke, ongi ezagutzen baitituzte gaixotasunaren ezaugarri eta ondorioak.

## Mobilizazioek nolako garrantzia dute zuentzat?

Egoera honen aitzinean edo deus egin gabe gelditzen gara, eskuak gurutzatuta, baina horrela badakigu ez dutela askatuko; edo gure esku dagoena egiten saiatzen gara Ibon aska dezaten, norabide horretan bultzatzen. Guk nahiago dugu noski eragile izan eta irtenbide justua lortzeko bulkatu. Hori egin ezean, badakigu zein izanen litzatekeen erantzuna. Mobilizatzeko noski, ez du bermatuko Ibon askatzea, baina argi dago askatasuna lortzeko aukerak mobilizazio eta gizarte aktibaziotik etorriko direla, hori garrantzitsua da. Neurri handi batean, Ibon eta larriki gaixo diren bertze euskal preso politikoak kaleratzeko giltza gizarteak dauka.





ARGAZKIA: E.IRAOLA

Txakurtxillotik Aparan industrialdera zabaltzen den lurzatian daude Doneztebeko herri-baratzeak.

GIZARTEA → BARATZEA HERRIAN BERTAN

# Herri-lurretan baratzeak sortuz

Hogei herritar ari dira Doneztebeko herri-baratzeen proiektuan parte hartzen

Itxura berezia hartzen hasiak dira Mourges etorbideko erreka bazterrak; belaia zegoen tokian baratzeak sortzen ari dira eta. Doneztebeko Udalak herritarren eskura paratu ditu bertako lursail

batzuk herri-baratze modura erabiltzaten. Proiektu honekin, herritarren eskariari erantzun eta nekazaritza jasangarria bultzatu nahi dute «lur-eremurik ez dutenei ere baratzea lantzeko aukera emanez».

## Eneritz IRAOLA

Txakurtxillotik Aparan industrialdera zabaltzen den lurzatian daude Doneztebeko herri-baratzeak. «Udalarena da lursaila eta erreka ondoan daudenez, ezin ziren etxebizitza

tzak eraikitze erabili. Bere horretan utziz gero ez ziren probestu eta sasiak janen zuten. Herritarrek baratzeak jartzeko tokiren bat eskatzen zutela ikusita, lur horiek herritarren esku uztea eraba-

ki genuen» azaldu dio TTIPI-TTAPari Ion Etxekoloneak, Doneztebeko Udaleko mendieta zinegotziak. Herri-baratzeen proiektuarekin «lur horiei balioa eman diegu eta jendearen behar bati erantzun».

ez baita ahaztu behar «aunitz direla Donezteben pisuetan bizi eta lursailik ez dutenak».

## HARRERA ONA

Udaberrian aurkeztu zieten proiektua herritarrei eta hasieratik izan zuen harrera ona «aurkezpen bilera bat egin genuen eta 25 lagun inguru bertaratu ziren». Apiril hondarrera arte egin zen zabalik izen-

emateko epea eta hasierako interes hori berretsi zen «20 herritarrek eman zuten izena».

## PAUSOZ PAUSO

Herri-baratze hauen kontzesioa eta erabilera arautzeko ordenantza prestatua zuen ordurako Udalak «esku-menak eta zaintza, funtzionamendu arauak, erabilera, mugak eta sarbideak, aprobetxa-

### NORK ESKA DEZAKE LURSAILA?

Donezteben gutxienez urte bete lehenagotik erroldatua dagoen herritarrek.

Eskatzaileak ezin du herrian ezaugarri bereko lursailik eduki.

### LURSAILA ESKATZEKO AUKERA ZABAIK

Interesa duenak Udaltxean egin dezake eskaera. Izen emate ordenaren arabera eginen dute baratzeen erabilerearen kontzesioa.





«Herriarren eskaerari erantzuteko modua izan da, aunitz baitira Donezteben pisuetan bizi eta lur eremurik ez dutenak. Herri-baratzeen bidez, baratzea lantzeko aukera eman diegu».

**Ion ETXEKOLONEA**  
Doneztebeko Udaleko zinegotzia

mendu epeak, kalte eta galeren ordainketak... puntu aunitz zehaztu genituen». Irailaren 24an egin zuten baratzeen zozketa eta urri hondarerrako lur zatiak banatuak zituzten «eskatzailleen artean denetarik dago: Gazte zein helduak, emakume eta gizonak; sortzez Doneztebekoak direnak eta kanpotik herrira bizitzera etorri direnak... jendea kontent, eskertua dago».

**EZAGUTZA PARTEKATUZ**

Baratzean arituak dira batzuk, hasiberriak bertzeak eta ilusioz hartu dute guztiek aukera berri hau «elkarri laguntzen ari dira. Gehiexa-go dakienak, bertzeei erakutsiz». Hartu-eman hori sustatu nahi dute «elkarte antzeko bat sortzea polita litzateke eta bertako haziak, bertako produktuak babesu eta landatzea bultzatuz».

**FORMAZIOA**

Formazioari ere garrantzia handia eman



ARGAZKIA: E.IRAOLA

1- Lehenbiziko formazio saioan, Jakoba Errekondo izan zen gonbidatua. 2- Lursaila zatika banatu dute eta batzuk dagoeneko hasiak dira lanean.

diote «erabiltzaileek 60 metro karratuko sailaren truke, urteko 40 euro ordaindu behar dituzte. Trukean Udalak hitzaldiak, ikastaroak.. antolatuko ditu urte guztian zehar». Urri erdialdean izan zuten lehenbiziko saioa «Jakoba Errekondoren bisita izan genuen. Baratzeak bisitatu zituen, bere liburuaren inguruan solastu eta aholku aunitz eman zizkigun». Hitzaldi eta ikastaro hauen bitartez «esperientzia daukanari ere zerbait gehiago ikasteko aukera eman nahi diegu».

**BARATZEAK MARTXAN**

Dagoeneko 20 herritarrek eskuratu dute bere lurzattia «batzuk hasiak dira lanean lurrari buelta eman diote, ka-


rea bota dute, lehenbiziko landareak landatu dituzte... bertze batzuk udaberrian hasteko asmoa dute». Gainera, oraindik lurzati polit bat erabili gabe dago «interesa duenak oraindik ere badu baratzea egiteko zati bat eskatzeko aukera».

**HURRENGO PAUSOAK**

Lehendabiziko fasea osatuta Doneztebeko Udalak urrats gehiago aurreikusten ditu «Udal aurrekontuaren barrenean herri-baratzeak garatzen joateko hobe-kuntzak egiteko konpromisoa hartu dugu. Bertzeak bertze konpostajerako guneak jarri, tresnak gordetzeko toki bat sortu... herri baratzeen eremua pixkanaka osatzen joanen gara».


**ERABILTZAILLEEN IRITZIAK**

**Natalia SARALEGI**




«Gurasoek baratzea zuten eta aita hil zenez geroztik ez dugu aukera izan baratzearekin segitzeko. Ohituak geunden azak, tomateak... etxeko produktuak jatera eta aukera hau izanda herrian bertan, animatu egin ginin»

**Noelia ARIZTIA**



«Pisu batean bizi garenek ez dugu baratzea izateko aukera gehiegirik. Udalak aukera polita ematen zigula iruditu zitzaidan eta horregatik apuntatu nintzen. Norberak landatutako barazkiak jatea osasuntsua eta interesagarria baita».

**Jabi CELAYETA**



«Jaiotetxean beti izan dugu baratzea eta Doneztebera bizitzera etorri nintzenetik gogoia izan dut. Aukera sortu zenean dudarik gabe hartu nuen baratzea. Ez dakigu lortuko dugun baina saiatu behar dugu, ea guk egindako zerbait jaten ahal dugun».

**Lulu MONTOYA**



«Baratzea haurrek lurrarekin kontaktua izateko modua da; barazkiak, inguru... zaintzeko ardura hartu eta produktuak nondik datozen ikastekoa. Gainera Udalak eskaintza polita egin digu eta erraztasun handiak eman ditu».

**Oier ZULAIKA**



«Betidanik izan dut gogoia lurrera bueltatzeko eta hau oso modu ona iruditzen zait. Uste dut umeentzat ere ona dela jakitea gauzak nondik datozen. Ekintza iraultzailea da norberak lurra lantzea eta etxerako gauza batzuk lortzen baditugu zoragarri».





**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Bertzeendako

**A**maia dantza taldekoa da, eta astean hiru arratsaldez ttikitoei dantzak erakusten aritzen da. Joxe herri tiki bateko alkatea da, eta hortxe ibiltzen da, berdin farola baten bonbila aldatzen, edo ur-depositoaren eskape tiki bat konpontzen. Jokinek futbola gustukoa du eta denboraldi guztirako talde baten ardura hartua du. Merte Guraso Elkartekoa da, eta ah, zenbat bilera eta buruhauste tokatzen zaizkion! Mikel eta Gurutxe herriko besten antolatzaileak dira, niorek ikusten ez duen lana egiten dute besta egunetan dena ongi ateratzeko. Jabi, Alazne, Nerea eta Manex herriko Elkarteko batzordekoak dira, eta beraiei esker antolatzen dira herriko kultur-ekitaldiak. Herriko xaharrak Luixa-ri esker bidai pulitak egiten dituzte, bera baita Arkupeak-eko ordezkaria... Konturatzen zarete gure inguruan esker oneko zenbat jende dagoen? Ixil-ixilean beren denbora bertzeendako eskaintzen dute. Itzulian deus eskatu gabe.

Lerro hauek baliatzen ditut gisa huntako herritarrei eskerrak emateko, gizartearen bizitza aberasgarriago izaten laguntzen dutelako. Biba zuek!!!!

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Hizkera sexistaz hausnarrean

**H**izkuntzaren erabilera sexistaren adibidetzat jartzen dute, erraterako *Arzallus eta Maialen ikusi ditut* (arraren abizena eta emearen izena erabiltzen delako, noski). Eta horren inguruan nere zalantzak ditut. Adibidez, gertaera bortitzagoa izanik, hizkera aldetik ez hain sexista edo xamurragoa egiten al zaizue, *Arzallusek Maialeni iletik tira egin zion* baino *Ametsek Lujanbio bortxatu zuen* idaztea?

## Nabarmentzekoak



**Nerea SORONDO**  
Arpana mistoan txapeldun

Josetxo Barberena ultzamarrarekin bikote eginez, Nafarroako arpana txapelketa mistoa irabazi zuen kirolari beratarrek urriaren 23an sorterriko Lurraren Egunean jokatuako saioan.



**Bittori JUANIKOTENA**  
Triatloman txapeldun orde

Jatorri baztandarra duen Erreka Tri taldeko kirolari mexikarra txapeldun orde suertatu da Espainiako triatloi luzeko txapelketan urriaren 23an Ibizan, 7 ordu eta 35 minutuko lanaren ondotik.



**Alberto BARBERENA**  
Lizuniagako Igoeran garaile

36. edizioa bete duen Lizuniagako Igoeran lehen aldiz nagusitu da korrikalari baztandarra. 18 minutu eta 6 segundo behar izan zituen, Fernando Etxegaraik baino 9 segundo guttiago.

Atzera begira → 2001-XI-15 TTIPI-TTAPA 314 zk.



### Sarako arno mahastiak ezagutz Fermin Urbistondorekin

Duela 15 urte, Saran oraindik arno egiteko mahastiak artatzen zituen Fermin Urbistondorekim izan zen Ttipi-Ttapa. «Jendeak ez du astirik mahastiak hartzeko, ohitura aspaldi galdu da», halaxe laburbildu zuen egoera Sarako laborariak. Urtero etxerako arno pixka bat egiten zuten, «uztarekin bi barrika, bi bordeles egiten ditugu gehienez ere, mahatsa beltza eta xuria biltzen dugu hemen». Halere, Saran 4 edo 5 mahasti bakarrik gelditzen zirela onartzen zuen Urbistondok, «orain gaudenak maite dugulakotz segitzen dugu, mahastiek lana bertzerik ez dute ematen eta jendeak nahikoa du berearekin».

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Bortzietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua



## Kolaborazioak

### Eromenaren beldur naiz

Juainas PAUL ARZAK

**E**romenaren beldur naiz. Edozein aldeetara begiratzen dut eta amorrua ikusten dut nagusi. Beste horrek omen egindakoak, nire aburuz egin dezakeenak edo agian egingen duenak zuzitzen du niri bururatzen zaidan bere aurkako edozein iritzi, gogo eta astakeria. Hurbil eta urruti. Mendeetan gerrak –aldameneko estatuaren artekoak, mundialak eta zibilak- eta erailetak– erlijioa, etsaigo politikoa eta soziala, aldamenekoenganako ezinikusia- eratu gaituzte. Ez direla bukatu naiz beldur. Are gehiago, beste batzuk sortzen eta indartzen ari direla iruditzen zaidala esatera nator. Zaharrak berritzen.

Mundua eta Europa mailakoak ikaragarrikoak izanik ere bazter utzita, estatu eremukoak kezkatzen naute gaur. Hauteskundeak zirela alderdien adibidea, egin duten zirkuak ez dio itxaropenari tokia ematen. Amorrua zabaltzen eta sustatzen ari da eta, neurri batean, alderdi politikoen oinarria bihurtzen eta indartzen. Nirekin edo nire aurka dute euren arteko mugakidea. Eta estatuaren leloak bezeroak lortu ditu eta lortzen jarraituko duela dirudi. Bakarrarena Marianoren zutabea dugu. Bide nabar, batzuen zikinkeriak ezalzteko baloragarria baldin bada ere, berak du nagusigoa.

Horretan dago kezka motiboa. Nirekin edo nire aurka. Aurkariak ohiko modura jokatzeko lortzen badute, gurea egina dugu. Arazo gorria, nire ustez, zera da: amorru sistema horri aurka on bat egiten asmatu behar dela, amorruaren itzal txikienean ere uxatu behar da. Nola? Ezin gera antzekoetan erori. Aldamenekoena, aberastasuna den neurrian, gisara azaldu behar dugu, ezagutu, goraipatu eta erabili. Herrien arteko harremanak oztopatu dezakete, ziur, lelo ergelen erabilpena, ikurren gerrak, hizkuntz baztertzailak... Egiten duguna baina gehiago jorratu eta elkartu beharko genuke eta musikariek bat egite hori lantzen duten antzera jokatu.

Gureak, nireak, ez dute beste inoren mespretxua behar. Nire, gure eskubideak aldarrikatzen ditudanean besteekin parekatuak nahi ditut, edonoren edozein ukapen kutxua baztertu nahi dut. Hori lortzean dago etorrera duina. Horrela ez bada, amorruaren garaipena ikusiko dugu.

«Hauteskundeak zirela alderdien adibidea, egin duten zirkuak ez dio itxaropenari tokia ematen. Amorrua zabaltzen eta sustatzen ari da eta, neurri batean, alderdi politikoen oinarria bihurtzen eta indartzen. Nirekin edo nire aurka dute euren arteko mugakidea»

### Euskaldunik ez da existitzen

Mikel RODRIGUEZ LANDA

**Z**enbat aldiz ez zaigu pasatu ezagutzen ez dugun ostaturen batean edo dendaren batean sartu, eta zuzenean gaztelaniaz solasean hastea? Zenbat aldiz, euskaldun batek bertzeari erdaldun baten aitzinean euskaraz egin, eta bertze euskaldunak gaztelaniaz egiteko erran, erdaldunari errespetu falta bat egitea delakoan? Zenbat aldiz, bertze bati komentatu dendari erdaldun bati euskaraz egin diozula denbora guzian eta ez duzula komunikatzeko arazorik izan, eta bertze horrek harrituta edo errezelorekin erantzutea zergatik egin duzun hori? Zein esplikazio du euskaldun bat bertzearen kontra paratzeak euskara erabiltzeagatik? Esplikazioa da euskaldunak ez garela existitzen. Errealitateak hala erraten du: Pirinotatik hegoaldera, denok gara gaztelania hiztun, eta, Iparraldera, denok frantses hiztun. Gero, guttiengo batek badaki euskaraz ere. Agian, aunitzek eguneroko bizitzan euskara erabiliko dute gehiago, baina inori ez zaio burutik pasatuko gaztelaniaz edo frantsesez ez dakien pertsona bat harrapatuko duenik. Euskaldunak, euskaraz bakarrik zekiten herritarrak, XX. mendean desagertu ziren. Eta zergatik desagertu ziren? Nazionalismo espainolak eta frantsesak desagerrarazi zituztelako. Espainiaren eta Frantziaren eredu nazionalen, haien mugen barreneko herritar guzietan obligazioz jakin behar dute haien hizkuntza. Horrek izen bat du, inposizioa, eta inposatzen digutelako gara gaztelania edo frantses hiztun, ez kausa naturalengatik. Baina tranpa ez da hori bukatzen, inposizioarengatik eskerrak eman behar baititugu. Nola bizko gara munduan gure euskara arraro eta ziztrinarekin? Begira ze zortea elebidun izatea, halako hizkuntza handiak jakin ahal izatea. Baietz? Hungarian gehienek ez dakite hungariera bertzerik, eta inguruko hizkuntzekin ez du zerikusirik. Eta nola ez dira, orduan, arraro eta ziztrin sentitzen? Ba haien herrialdean ez dutelako arazorik eguneroko bizitzan osoki haien hizkuntzan egiteko, bertzeak bertze, ez daudelako bertze nazioren baten menpe. Baina nola erran liteke elebidun izatea txarra dela? Ez, elebidun izatea hagitza ona da. Islandian gazte gehienek islandiera eta ingelesa dakite; ingelesa, nazioartean eta gehienbat European espainola baino aunitzez erabilgarriagoa den hizkuntza. Zein da diferentzia? Islandiari ez diola ingelesa inposatzen ez Ingalaterrak, ez inork, eta, hortaz, islandierak ez du gibelera egiten ingelesarengatik. Hemen, ordea, euskaraz dakigunok gibelera egin dugu gaztelaniaren eta frantsesaren erruz, eta ideologia bat inposatu zaigu: menpekoaren ideologia. Horrengatik euskaldun aunitzek pentsatzen dute gaztelania edo frantsesa direla hizkuntza serioak, edo erdaldun bat biktima bat dela euskaraz ez dakielako; 40 pertsonako bilera batean bi erdaldun badaude, erdaraz egingen dugu, ez ditzagun diskriminatu. Azken finean, zertarako nekatu euskararekin, zertarako exijitu instituzio publikoei eta pribatuei gure hizkuntzan aritu ahal izatea, denok erdaldunak bagara?



## Irakurleak mintzo

Lalala, laralala,  
lalalalalalalaXanti BEGIRISTAIN  
MADOTZ (Auritz)

Aditu askok eta askok, behin baino gehiagotan esan digute, Euskal Herriak aberastasun ikaragarri handia duela bere musikagintzan eta kantutegietan. Segur aski, hala izanen da. Baina, kasu honetan, bereziki kantutegietan kokatu nahi dut arreta.

Jakina da abestiek bi osagai nagusi dituztela, alegia, musika eta hitzak. Horrela, ba, pixka bat erreparatuta, berehalaxe konturatuko gara, gure abestiek bertso, kopia, olerki, eta abar, ugari dituztela. Hala ere, irakurle hori, ez al zara konturatu gero eta gehiago entzuten direla *lalalala; larara; tralalalala* eta antzeko urruma aspergarri eta nardagarriak? Ni, bai behintzat, ohartuta nago, eta, egia esan behar badut, aitortu beharrean nago ez didatela bate-re graziarik egiten, are gehiago oraindik, adierazi beharra daukat gorrotagarriak gertatzen zaizkidala.

Kanta-marmar horiek, jende arruntak asko egiten ditu; gehiegi seguru asko. Zoritxarrez, oso ohikoak dira, Hego Euskal Herrian behintzat. Nire ustez, horrek gauza bat adierazten du argi eta garbi, hau da, euskaldunok geure-geurea den hizkuntzan kantatzeko gaitasuna izugarri galdu dugula. Gainera, susmoa dut euskaldun as-

kori bost axola zaiola hau guztia; gaztelaniaz, frantsesez edota ingelesez askoz ere errazago gogoratzen baitituzte erdal abestien hitzak. Pentsatzen dut kezka-garria dela oso. Era horretan jokatuta bestalde, hots, *lalalala...* kantatuz, iruditzen zait geuron burua engainatu baino ez dugula egiten; alegia, munduaren aurrean agertu nahi dugu euskaldun peto-peto bagina bezala, eta geure ezintasun eta eskasiak baizik ez ditugu erakusten.

Aurreko guztia jende arruntari buruzkoa izan da, baina orain azterdazagun pixka bat zer gertatzen den abeslari profesionalekin-edo. Neronek, behinik behin, behin baino gehiagotan ikusi eta entzun izan ditut *lalalalala* kanta-marmarra abesten eta entzuleei zuzenean kantatuz, eta ez hain zuzen ere, abesti hark ez zeukalako hitz gehiagorik euskaraz, ez. Beraien jakinen dute zergatik egiten duten hone-lakorik. Dena den, ni halakoetan zeharo deseroso sentitu ohi naiz; euskaraz abesteko pertsona ezgai eta ezdeusak bagina bezala.

Halako kontzertuetan, abeslari batzuek egin ohi duten beste akats arrunt bat izaten da, azalpenak ematera koan, erdara mordo erabiltzea. Badirudi abeslari horiek ez direla fidatzen beren entzuleez; nonbait, pentsatu behar dute beren ikusle gehienak erdaldunak direla, eta horrela justifi-

fikatu nahi dutela erdara barra-barra erabiltze hori. Normalean, hala ko entzunaldietara joaten den jendea nahiko euskalduna izaten da, edo gutxienez euskaltzalea; beraz, begintzen zait ez dela beharrezkoa eta ezinbestekoa hainbeste erdara erabiltzea, baina, bueno, hau nire iritzia besterik ez da.

Antzeko zerbait gertatu zitzaidan niri urriaren 8an, Burlatan. Izenik ez dut emanen inor nabarmen ez uzteagatik, baina, nik esanen nuke gai honetan beharrezkoak izan daitezkeela hausnarketa eta gogoeta serio batzuk. Neronek, *lalalala* kantatzekotan, nahiago dut isilik egon edo bestela aurreko hitzak errepikatu.

## Pena bat izan da?

AROTZEGIA... ETA GERO ZER? PLATAFORMA

Pena dela diozu Isabel Elizalde anderea, Diario de Noticiasen egindako elkarrizketatik Ttipi-ttapan argitaratutako hitzetan. Aroztegiari buruz ari zara, proiektu turistiko dela, erresidentziala ere bai, Baztanendako garrantzitsua izaten ahal dela...

Ikaragarria da hau aditzea, gauzak nola joan diren ikusita. Aroztegiako auziak, kontseilaria izanik, zure mahai gainera ailegatu zelarik konponbide erraza, zentzuzkoa eta demokratikoa zuen, eta gaur egun ere, borondate politikoa izanez gero badu.

Baztanen eztabaida soziala eta kezka handia sortu duen proiektua da. Ez proiektu turistiko delako, proiektu urbanistiko espekulatzailea delako, zuk aski ongi dakizun bezala. Baztango erakundeei erabakitzeko eskumena kentzeko UGPSa bezala tramitatu delako eta modu honetan herritarren nekazal lurak eta Baztango herri lurak SICAVen jabeen eta diru publikoarekin erreskatatutako bankuei oparitu nahi zaizkielako. 350 biztanle bateko herrian 40 hektarea birkalifikatu direlako 228 etxebizitza egiteko, herri honen desagerpena bulkatuz. Akaso planteatuko zenuke horrelako proiektu "turistiko" bat

Zubietan? Hau al dazuretako landa eremuko herritarrak eta herriak ahalduntzea?

Zure esku zegoen eta zoritxarrez segitzen du, auzi honi irtenbide demokratiko bat ematea eta baztandarren erabakitzeko eskubidea errespetatzea. Hau egin beharrean, nahiz eta bilera batean bertako ordezkari, erabakirik hartu aitzinetik, Gobernuaren erabakia jakinaraziko zitzaie erran, UPNko kontseilarien jokatze bera erabili duzu. Modu zikin eta ezkutuan, urte zahar bezperan, Baztango ordezkariak informatu gabe, UPNren inposizioa berrestea erabaki zenuen. Gainera, erabakia hartu behar zela jakinik oporretan joatea erabaki zenuen, zure arduraz ihes egin nahian.

Herritarren interesak defendituko dituzten agintariak behar ditugu, ausardia eta lotsa dutenak. Eta zuk, agerian gelditu den bezala, ez duzu ez bata ez bertzea!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«15 urtetan utzita egon da [Aranoko moto-kross pista]. 17-18 urterekin anaia eta biok ibiltzen ginen motokrossean, eta Aranoko pista hau erabiltzen genuen. Bukatu genuenean han geratu zen terrenoa. Baina 15 urte geroago berriro hasi nintzen motoarekin. Terrenoa, ordea, larrez betea zegoen (...). Horrela, pixkanaka garbitu eta txukundu egin genuen».

**Patxi LARREA**  
Aranoko motorzalea  
KRONIKA 2016.10.22



«[1962ko suteaz] Aseguruaren dirua kobratu eta eskola berria eraikitzeko erabili nahi zela aipatu zen. Gero, frogatu zen ez zela hala izan».

**Fermin GOÑI**  
Lekarozko ikasle ohia  
BERRIA 2016.10.25

«30 pertsonako klase-etan, bortz edo sei ginen emakumeak. Hasieran beldurrarekin joaten ginen».

**Alicia DEL CASTILLO**  
Lekarozko ikasle ohia  
BERRIA 2016.10.25

**11 galdera labur**

**Nor da Pakita Mikelarena?**

Etxeoandre xume bat naiz. Orain jubilatua. Hiru ume izan nituen eta baditut bost biloba.

**Zein afizio dituzu?**

Herriko eta Doneztebeko koroan kantatzen dut. Irakurtzea, idaztea, baratzean aritzea, mendia... denetarik gustatzen zait.

**Legasan jaio, Leitzan bizi eta buelta sorterrira?**

Ezkonduta eta Leitzan bizi izandua ginen 10 urtez. Baina ama ez zegoelako ongi bueltatu eta hemen egin dugu bizia. Gu etorrita, amari eritasun guztiak joan zitzaizkion.

**Arkupeak elkarteko juntakidea zara, noiztik?**

Duela urte batzuk hasi nintzen. Hemen delegatuak bazuen adina eta hari laguntzeko. Eta Bañares presidente zegoelarik sartu nintzen direktiban.

**Zein lan egiten dituzue?**

Idazkariari ahal dugun neurrian laguntzen diogu.

**Literatur lehiaketa irabazi duzu...**

Bai eta poza handia izan da. Euskaraz aurkeztu ditut idazlanak eta bertsoak. 14 bertso eskatzen zituzten eta sobera iruditzen

zitzaidan baina azkenean animatu eta 14 bertso eta propinako beste bat aurkeztu nuen beste doinu batekin.

**Noiztik duzu idazteko afizioa?**

Betidanik. Anaia hil zen duela urte batzuk eta beti izan dut umetako kontu haiek idazteko gogoia. Duela gutxi animatu, eskribitzen hasi eta koaderno batzuk bete ditut dagoeneko.

**Irakurtzeko afiziorik baduzu?**

Gustatzen zait aunitz aunitz. Orain jubilatuta asti guttiago dut. Lehen goizeko bostetan jeiki behar laneira joateko eta egunero nobela bat leitu behar izaten nuen...

**Legasako gustuko txokoa?**

Ugaldea ttikitan asko ibilia naiz han.

**Amets bat?**

Duela zortzi bat urte haurtzaroko amets eder bat izan nuen. Haretzekin egin nuen lehenengo bertsoa. Amets asko izan ditut baina hura ez zait behin ere ahaztu.

**Bidaiatzea gustuko duzu?**

Bai. Aldrebeska ibilita ere, leku berriak ezagutzea gustatzen zait.



**Pakita MIKELARENA → Legasako emakumea**

**saroha®**  
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo  
31780 Bera (navarra) t.948 63 0899  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
TEL: 948 625 474 BERA NAFARROA

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 · BERA

**KATEA BIKE**

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak

**2. eskuko bizikletak**

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218  
[kateabera@telefonica.net](mailto:kateabera@telefonica.net)

MASSIMO ORBEA CONDOR SCOTT LOOK

**EDARI AK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
[tabernabera@gmail.com](mailto:tabernabera@gmail.com)  
[www.tabernaedariak.com](http://www.tabernaedariak.com)

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)

*zalain*

# ARKUPEAK



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 20AN

## Elkartek urteko besta handia egin du Gorraizen

540 bazkide bildu eta omenaldiak egin dituzte

### Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak bazkidearen eguna ospatu zuen urriaren 20an Gorraizen. Hildako bazkideen omenez egindako mezarekin hasi zuten eguna eta ondotik, Jose Luis Legarra presidentek hildako bazkideei

aipamena egin eta oroi-garriak eman zizkien aurretik omenetakoak: 85 urte bete dituzten 21 lagun, Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten 13 senar-emazte eta Diamantezkoak ospatzen dituzten 4 senar-emazte.

### SARI-BANAKETA

Elkarteko kide gehienak bertan zirela aprobetxatuz, Arkupeak aurretik antolatutako lehia-ketako sariak ere banatu zituzten. Pakita Mi-

kelarena, Blanca Bertiz eta Pako Pascualek jasotzen zituzten literatur lehiaketako sariak. Argazki lehiaketan Blanca Bertiz eta Fernando Etxeberriaren lanak izan ziren sarituak eta Alexandro Pozzik eskuratu zuen margolan onenaren saria.

Eguerdiko ordubietan bazkaltzeko elkartu ziren eta Jose Angelen akordeoiaren erritmora dantzan bukatu zuten ospakizun borobila.

### 2016KO OMENDUAK- URREZKO EZTEIAK

Luciano Altzuguren eta Francisca Dagerre	BERA
Juan Jose Ruiz eta Francisca Romero	BERA
Pablo Ansalas eta Francisca Ariztegi	BERA
Antonio Rodriguez eta M <sup>o</sup> Carmen Tomasena	GOIZUETA
Ramon Apezetxea eta Martina Loiarte	GOIZUETA
Jose Arburua eta Ines Etxeberria	IGANTZI
Julian Telletxea eta Marie Charlotte Maurer	IGANTZI
Enrique Casado eta Lourdes Sanzberro	IRUN
Jose Luis Elgorriaga eta Mari Cruz Etxebeste	IRUN
Julian Santesteban eta Josefa Telletxea	IRUN
Antonio Alonso eta Asun Martirena	LEITZA
Emilio Zestau eta Milagros Olano	LEITZA
Fulgencio Iriarte eta Elena Iruireta	SUNBILLA

### 2016KO OMENDUAK- DIAMANTEZKO EZTEIAK

Jose Fagoaga eta Mari Lourdes Lopez	BERA
Antonio Telletxea eta Gloria Maia	BERA
Serafin Elosua eta Natividad Iparragirre	IRUN
Pedro Gragirena eta Isabel Lucia Juanenea	SALDIAS

### 2016KO OMENDUAK- 85 URTE

Filomena Errandonea (Arantz), Luciano Altzuguren, Juan Etxart eta Fermin Etxegarai (Bera), Alberto Zabalo (Doneztebe), Joaquina Ibarra (Elgorriaga), Calixto Alzuarte (Elizondo), Mari Carmen Auzki (Erratzu), Cecilia Perurena (Goizueta), Eusebia Telletxea (Igantz), Francisco Pagola, Antonio Elias Mateo, Pedro Sorzabalbere eta Manuela Susperregi (Irun), Mari Asuncion Arregi (Ornoz), Xole Agirre (Narbarte), Fulgencio Iriarte eta Irene Altzuri (Sunbilla), Francisca Etxeberri, Paquita Maia eta Migel Migeltorena (Urdazubi)



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Elikadurari buruzko hitzaldi interesgarria

Urriaren 27an Josetxo Ruiz Lopetedik eskaini zuen hitzaldian adinekoendako elikadura egokiena zein den azaldu zuen. 26 pertsonak bertaratu ziren eta 40 minutuz, gomendio interesgarriak eman zituen. Bertzeak bertze, egunean bost ordu egitea gomendatu zuen hiru egin beharrean.

Azaroan *Hiritarren Segurtasunari* buruzko hitzaldia eskainiko dute Foruzaingoek Elizondo eta Beran. Adinekoei sufritu ditzaketen gehiegikerien aurrean nola jokatu erakutsi diete. Data ez dituzte zehaztu baina laister jakinaraziko dituzte.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Elizondoko ferietan erakusketa

Elizondoko ferien baitan, Arkupeak elkarteko zenbait kideren lanak egon ziren ikusgai: Juan Mari Errotabereak egindako egurrezko kuadroak *Zazpiak bat* eta *Gernika* irudikatuz, Tere Bahillok gantxilloarekin egindako lanak eta Maria Puy Luquin, Mila-gros Esteban eta Mari Karmen Auzkiren margo-lanak.



## Azaroaren 18an ospatuko dituzte udazkeneko feriak

Goizean aziendak, arratsaldean herri kirolak eta egun osoz, ehunka postu egonen dira bisitarien esperoan

San Martin ondoko ortziralean, aurten azaroaren 18an, bisitariz beteko dira Doneztebeko karririkak, feria eguna izanen baitute. Aziendak maite dituenak, goizean goizetik, Merkatu Plazaren bueltan herriko eta inguruko aziendak ikusi eta tratuan aritzeko aukera izanen du. Bertzerik nahiago duenak artisauen lanei, jakiei, jantziei, apaingarriei edota lanabesei begia botaz gozatzeko aukera izanen du, eta gustatuz gero, zer erositu izanen du. Arratsaldean, berriz, Nafarroako I. Mailako Aizkora eta II. Mailako Arpana txapelketak jokatuko dira.





### ALT XUNEA ERRETEGIA

**IREKITA**  
ostiral eguerditik igande eguerdira,  
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 · ITUREN  
T. 948 450 410

## MALE-REKA

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK

**KIROL-ARROPA** *atope!!*  
**LANEKO ARROPA**



**MENDIKO ARROPA**



**KAMISETAK TXAPELAK  
PAÑULUAK BORDATUAK**

*Gure diseinuak eta pertsonalizatuak!*



**Bertako produktua, etxekoa, hurbilekoa!!!**

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190  
male-reka@male-reka.com · [Male-Reka](#)

# KONTXA



## GASOLIOA ETXERA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA
- ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
- PREZIO LEHIAKORRA

## Gasolindegia



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- SUPERMERKATUKO PREZIOAK DITUEN DENDA
- TABAKO SALMENTA
- DUTXA ZERBITZUA
- FAX ZERBITZUA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK

## TASKA Simón TABERNA - KAFETEGIA

- \* MENUAK
- \* PLATER KONBINATUAK
- \* OGI TARTEKOAK
- \* PINTXOAK

~ ERAMATEKO JANARIAK ~



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE T. 948 450 272 · 948 450 787



TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN



www.facebook.com/ttipi.eus



**Maite Moda**

Kale Nagusia, 4 behe  
DONEZTEBE  
T. 948 450 727  
Maite Moda



**Mailposta Buzoneos**

diseinatu inprimitu banatu

Bisita txartelak, egutegiak, kartelak, fakturak,...  
inprintzen ditugu.

Kartelak, egutegiak, foiletoak,aldizkariak,...  
banatzen ditugu.

Tel. 686 747 713 \* NARBARTE  
www.mailpostabuzoneos.com

*Mendiburu*  
**aziendak · tratantea**

Ongi pasa feriak!



608 676 221  
948 450 084  
DONEZTEBE

EGUN OSOKO BESTA

## Eskaintza zabala eginez 150 postu baino gehiago bisitarien esperoan

Feri eguna borobiltzeko, eta aurten berrikuntza gisa, Pantxoa Karrere kantari ezagunak kontzertua eskainiko du ilunabarrean Doneztebeko Zineman


Egun berezia izaten da feria eguna doneztebar nahiz kanpotik etortzen diren bisitariarentzat. Goizean goizetik nabaritzen da mugimendua, bai 09:00etarako karraketan paratuak izaten dituzten 150 bat posturen bueltan, edo baita goizez Merkatu Plazan egoten diren ganaduen inguruan ere. Tragoxka bat hartu edo ongi jan nahi duenak ere aukera zabala du ostaluetan eta jatetxeetan... Eta herrikirol saio ederrarekin gozatzeko modua ere badu nahi duenak. Ez da deusen faltarik izaten Doneztebeko ferietan. Aipatzekoa da, bertzalde, Doneztebeko Udalarentzat diru-iturri ere badirela feriak. Udalak 5.000 eurotik goiti biltzen ditu egun honetan.



Karrikak postuz beteak egoten dira ferietan.

### KONTZERTUA ZINEMAN

Ohiko egitarauaz gain, aurtengo feriek berrikuntza bat ere izanen dute. Pantxoa Karrerek kontzertua eskainiko baitu 20:00etan Zineman. Peio Ospitalekin batera, hain ezagun egin den Pantxoa eta Peio musika taldeko kidea da. 1970. hamarkadan hasi ziren elkarrekin kantatzen, baina gaur egun, Peio eta Pantxoa bikote klasikoa desagertu zenetik, Pantxoak bere gisara segitu du herrizherri kantari. Gainera, bere bakarkako lehenbiziko diskoa ere argitaratu berria du: *Anaitasunean* izenekoa, Elkar argitaletxearekin.



Pantxoa Karrere azkaindarra.



**Sampi Aragón S.A**

ONGI PASA FERIAK!

Zonaldeko Ford zerbitzu ofiziala

Ford markako ibilgailuentzat zerbitzurik osotuen

T. 948 450 354 | DONEZTEBE  
sampiaragon@sampiaragon.com





HERRI-KIROLAK

# Nafarroako Maila Nagusiko aizkora txapelketa jokatu dute ferietan

Egun berean, Nafarroako II. Mailako Arpana Txapelketa ere egiten dute. Herri-kirol saioa 18:00etan hasiko da Ezkurra pilotalekuan



Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketan parte hartuko duten borts aizkolariek.

Feria eguneko arratsalderako herri-kirol saio ederra prestatu du aurten ere Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu dute borts aizkolariek: Iker Vicente (Otsagabia), **Jon Rekondo (Leitza)**, Juanjo Lopez (Lezaun), **Ruben Saralegi (Leitza)** eta **Donato Larretxea (Arantza)** ariko dira lanean eta egin beharreko lana hau izanen da: lau kanaerdiko, bertze lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte.

Ez da eguneko lehia bakarra izanen, egun berean, Nafarroako II. Mailako Arpana Txapelketa ere jokatu dutelako. Alde batetik, etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar epai eman beharko dizkiote eta bertetik, zutik jarritako 45 ontzako enborrari lau epai. Bi bikotek parte hartuko dute arpanean: Gerendiaingo Esteban eta Martin Pikabeak eta Berriozarko Raul Maiza eta Jose Luis Canok. Herri-kirol saioa Ezkurra frontoian egiten dute, 18:00etan hasita. Sarrera 15 euro kobratuko dute.

ORDUA  
**18:00**  
HASIKO DIRA  
HERRI-KIROLAK

**EROSKI city**  
ongi pasa feriak!!  
T. 948 456 152  
Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE

**TABERNA ZAHARRA**  
UDAZKEN-NEGUKO MODA  
Gizon eta emakumeendako arropa-denda  
Gortinak eta etxerako arropak (mantak, mairidireak...)  
Merkatarien karrika, 11  
DONEZTEBE  
Tel. 948 450 007

NOBIA HAZIAGAILUA 199€  
STIHL VIKING  
ESKAINTZAK 2016  
BEHAR DUZUN GUZTIA BADUZU?  
MOTOGARBITZARBAK 139€  
MOTOFERRAK 199€  
ZURE DENDA ESPEZIALISTAN BAKARRIK  
BANATZAILEA  
**José Luis San Miguel**  
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

**TIT BAR**  
DONEZTEBE  
ONGI PASA FERIAKI  
Ameztiá, 7 - Donetztebe - Tel. 948 450 271

**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea · DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333  
Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura  
ongi pasa feriak!



**goldea** tailerra s.l.l.  
ongi pasa feriak!

tel./fax: 948 450 060  
e-mail: goldeatallerra@gmail.com  
Pol. Industrial Aparan. 3  
31740 Doneztebe (Nafarroa)

**Arozena**  
ostatu · jatetxea

Gosariak  
bazkariak  
eta afariak  
ongi pasa feriak!

T. 948 450 443  
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

Sampi Aragón

TALLER ESPECIALIZADO SEAT VW Audi

ONGI PASA FERIAK!

**Sampi Aragón S.A**

MARKA HAUETAN ESPEZIALISTAK  
Mekanika · Elektrizitatea · Txapa · Pintura

Audi SEAT VW

T. 948 450 354 | DONEZTEBE  
sampiaragon@sampiaragon.com

**IRINTZI**

LARUNBAT GAUETAN  
SEKULAKO GIROA!!!  
ONGI PASA FERIAK!!!

Merkatariek karrika, 28  
31740 DONEZTEBE  
T. 636 920 796

**OSTATUA**

Iker BERREGI | Ihes egindako ganaduak biltzen ditu

«Garrantzitsua da zakurrak ongi prestatzea, lana ongi egin eta ganaduari kalterik ez egiteko»

Ganadutegietatik edo bertze edozein tokitatik ihes egindako ganadua harrapatzea dute xede, jabea eduki ala ez. Eta heltze-txakur nafarrak, artzain txakurrak eta zaldiak dira horretarako amuak. SAPN Presa Navarro Fundazioan egiten dute hori. 2015ean sortu zuten fundazioa, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, ordura arte egindako lana hobeki antolatzeko. Eta geroztik 112 zenbakari lotutako zerbitzua da. Norbaitek zerbitzuaren beharra izanez gero, aski du 112ra deitzearekin.

Lehenagokoa da fundazioaren izena darman kluba, Presa Navarro Kluba. 1992an sortu zuten, heltze-txakur nafarraren mantentzeaz arduratzeko. Ehun bazkide baino gehiago ditu klubak, eta gehienak Euskal Herrikoak dira. Tartean bada eskualdeko jendea ere: Josetxo Urrutia lekaroztarra, Matxin Gorriti narbartearra, Aitor Arozena doneztebarra, Luis Martin doneztebarra eta Iker Berregi aurtiztarra. 2010az geroztik, klubean daude. Hor ibiltzen dira ihes egindako ganaduak harrapatzen, «jabeek bildu ezin dituztenak edo jaberik gabe daudenak ere bai». Halaxe kontatu digu Iker Berregik. Itxiturak erabiliz biltzen dute ganadua: «artzain txakurrek behiak itxiturretara eramaten dituzte, eta heltze-txakur nafarrak, berriz, ganaduak lotzeko zaintza lanak egiten ditu».

Berregik adierazi digunez, «Euskal Herri osoan barna lan egiten dute». Aurtengo maiatzean, adibidez, Jaizkibel mendian kontrolik gabe bizi ziren 25 betizua



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Berregi aurtiztarra, betizua gibelean duela.

bildu zituzten. Baina Espainia aldean ere ibili izan dira, Sorian, erraterako. «Galiziatik ere deitu ziguten, baina txakurrekin eta zaldiekin haraino joatea gas-tu handia zenez, ez ginen joan».

**GUSTUKO TOKIAN MALDARIK EZ**

Lan «gogorra» dela onartu digu Berregik: «baina ganadua eta lurra ezagutuz gero, ez da zaila». Gaineratu digu, «txakur onak eta ongi prestatuak izatea garrantzitsua dela, lana ongi egiteko, arriskurik gabe aritzeko eta ganaduari kalterik egin gabe». Izan ere, Berregik azpimarratu nahi izan du «hartutako ganadua ganadutegira bueltatzen dugula, ez hiltzegira».

**EDERKI** tailerra



CITRÖEN  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoan moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525





## «Ttikitatik mendia, txakurrak eta ganadua gustuko izan ditugu eta modu honetan hiru zaletasunek bat egiten dute»

Ganaduaren gibeletik ibilaldi luzeak egi- tea tokatzen zaie, «bide zikinetatik, eta askotan mendi hegaletatik», adierazi digu Berregik. Horregatik, «fisikoki ongi prestatuak» egotea ezinbertzekoa omen da: «baina gazteak garenez eta osasuntsu gaudenez, ongi moldatzen gara». Susto «asko» hartutakoak direla ere azaldu digu: «baten bat zalditik erortzean, harramazkaz betetzen gara, eta zenbait kolpe ere hartzen ditugu. Txakurrek ere kolpe edo ostikadaren bat jasotzen dute. Momentuko adrenalinarekin ez zara konturatzten, baina hurrengo egunean ondorioak sumatzen dira».

Eta hori guztia musutruk egiten dute, gustuko dutelako: «zaletasun bat da, ez lan bat. Gasoila eta bazkari bat ordainduz gero, gu pozik», erran digu aurtiztarrak. Are gehiago, «ttikitatik mendia, txakurrak eta ganadua gustuko izan ditugu eta modu honetan hiru zaletasunek bat egiten dute».



## «Txakur zintzo eta langileak dira»

Maiteak ditu txakurrak Iker Berregik, eta bereziki atsegin ditu heltze-txakur nafarrak. Halako hiru ditu, *Otto*, *Yuma* eta *Thor*. Horregatik sartu zen Presa Navarro Klubean, heldu den urtean 25 urte beteko dituen klubean, hain zuzen. Kontatu digunez, «gogo eta ahalegin handia jartzen ari gara arraza aurrera atera dadin». Gero eta ezagunagoa omen da: «Holanda aldera zabaldu ditugu gure arrazako txakurrak, eta laguntzarekin ospetsua eta erabilgarria bihurtzea lortuko dugu». Berak argi baitu balio dutela: «txakur zintzo eta langileak dira, hemengo jendea bezala. Harrotasun handia da guretzako».



**CTV** ALBAITARITZA ZENTRU TEKNIKOA  
ONGI PASA FERIAK  
Rosa Seminario, 15 · DONEZTEBE · 948 450 591 · 659 884 374

Parroquia 17 | DONEZTEBE  
Tel-Faxa: 948 450 289  
costiz@telefonica.net  
ZAPATA-DENDA  
LIBURU-DENDA  
PAPERTEGIA  
ZURE BETIKO DENDA ORAIN ON-LINE ERE:  
[www.libriercasacostiz.com](http://www.libriercasacostiz.com)

**miren elorza**  
"Etxeke ekoizpena"  
CARNICERÍA | HARATEGIA  
ETXEKO PRODUKTUEN ATALA:  
tripakiak, txuri-beltzak, txistorrak, sailtxiak, hamburgeresak, enpanatuak, kroketak...  
ENKARGUAK ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA  
ONGI PASA FERIAK!!  
Miren 620 570 049 · 948 450 040  
Merkatarien karrika, 12 · DONEZTEBE

**FERIETAN ZURE GOSARI ETA BAZKARIAK ARIZTIGAIN kanping-jatetxean!!**  
OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK  
[Jaunartze, bataio, familia bazkariak...]  
SUNBILLA | 948 450 540 | [www.campingariztigail.com](http://www.campingariztigail.com)

**ZERGALAN** aholkularitza  
[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es)  
info@zergalan.es  
Ongi pasa feriak!  
ZERBITZU FISKALAK  
• Aholkularitza fiskala  
• Zerga agiriak  
• Errenta aitortpenak  
• BEZ aitortpenak  
• Sozietate zergak  
• Zure negozioaren zergen kontrola  
KONTABILITATE ZERBITZUAK  
• Kontabilitatean aholkularitza  
• Enpresen erakiteza  
• Kontabilitatearen eramatea  
• Administrazio zerbitzuak  
• Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena  
BERTZE ZERBITZUAK  
• Jubilazioen eramatea  
• Ezgaitasunen eramatea  
• Lan eta erresidentzi baimenen eramatea  
• Aita eta amatasun bajak  
• Langabezi kapitalizazioak  
• Diru - laguntzak  
• Negozioen bideragarritasunen eramatea  
Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648  
Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



**Dia**  Ferietan otordu goxoak prestatzeko

**LESAKA** **LESAKAKO DIA**

**Plaza Berria, 10 · 948 637 335**

**GOZOTEGIA**  
**HAIZEA**  
**BOLLERIA · KAFETEGIA**  
ongi pasa feriak!  
T. 948 63 80 36 · Plaza Zaharra, 7 · LESAKA

 **IZARRA OKINDEGIA**  
ongi pasa feriak!  
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA  
TEL: 948 637 855

**LEIZA OSTATUA**  
**"Antoiu"**  
Tel. **948 637 087**  
Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

**BOKATAK RAZIOAK**  
**EGUNEKO MENUAK**  
**MENU BEREZIAK ENKARGUZ**

**KASINO**  
**OSTATUA - RESTAURANTE**



**feria alai eta pozgarriak izan ditzazuela**

**Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87**

## LESAKAKO FERIAK

### Azaroaren 23an eta 24an ospatuko dituzte Lesakako Feriak



Udazkeneko feriak borobiltzeko, azaroko azken ortzegunean, azaroaren 24an, Lesakak hartuko du lekukoa, Nafarroako Erregeengandik 1499an eskuratutako Bortzirietako Feria ospatzeko.

Beheko Plazan artisauek egindako lanak ikusteko aukera izanen da goiz osoan. Plaza Zaharrean, berriz, Bortzirietako hainbat baserrietako aziendak ikusgai izanen dira. Horrez gain, herriko karriketan izanen da zer ikusi eta zer erosi gehiago ere.

Aitzineko urteetan bezala, 11:00 aldera Plaza Zaharrean aizkolariak lanean ariko dira. Ondotik, toki berean, bertsolarien txanda izanen da. Eguerdian, azienda lehiaketako sari banaketa eginen dute.

Arratsaldean, 17:30ean, pilota partidak jokatu dira udal pilotalekuan eta eguna borobiltzeko 18:00etan dantzaldia izanen da Plaza Zaharrean.



#### BEZPERAN GEHIAGO

Feria egunaren bezperan ere izaten dira ekitaldiak. Hala, azaroaren 23an, dagoeneko ohitura bihurtu den Ajoarriero lehiaketa eginen da Beheko Plazan. Beti

Gazte Elkarteak antolatutako lehiaketa 18:00etan hasiko da. Ordu berean Lesakako Tzikitixa Taldekoek kalejira egiten dute herrian barna.



## 2017KO NAFARROA OINEZ

# 'Bikin bat in' leloa izanen du Lesakan eginen den Nafarroa Oinezek



Hasia da gibelerako kontaketa. Lesakako Tantirumairu Ikastola hasi da 2017ko urriaren 15ean eginen den Nafarroa Oinez prestatzen. Eta ardua hori «ilusio handiz» hartu dutela adierazi zuen Aitor Irtzoki ikastolako zuzendariak azaroaren 3an Iruñean egindako aurkezpenean. Kontatu zuenez, «Tantirumairu ikastolak zazpi ikaslerekin hasi zuen bere bidea 1974an. Garai hartan irakaskuntza euskaraz aldarrikatzen zuen gizarteak Euskal Herriko bazter guztietan. Gogo horri erantzunez sortu zen ikastola, guraso eta laguntzaile talde baten ekimenez». Hasierako urte haiek «zailak» izan zirela ere gogoratu zuen, «baliabide eta lokal egokirik gabe» egon zirelako. 1988ko Oinezari esker, ikastolaren egoitza erabat berri eta legeak eskatzen zuen bezala egokitu zuten, eta 1991n behin betiko legeztapena lortu zuen. Eta hara non, «2016/2017 ikasturtean 113 ikasle ditu Tantirumairu Ikastolak. 75 familia, 16 langile eta ehun bat bazkide».

**PREMIAK ASETZEKO** Ikastolako «zenbait premia asetzeko» izanen da Nafarroa

Oinez. Hala aipatu zuen Amaia Lasheras ikastolako presidentek aurkezpenean: «jangela handiagoko gure ikasle talde handiari behar bezala bazkaria eman ahal izateko; Laborategi bat lehenagokoa informatika gela bilakatu behar izan baitugu; Hezkuntza premiak dituzten hurrekin lan bereziak egiteko gela; Talde bikoiztuak banatzeko gelak; Zuzendaritza bulegoa, tutoretza gela eta guraso elkartearentzat bulegoa». Eta oraingo eraikinak ez duenez zabalkuntzarik onartzen, ondoan eraikuntza berri bat eginen dute: «egoitza berriak lehenbiziko solairuan Haur Hezkuntzako etapa osoa hartuko luke eta jangela eta

psikomotrizitate gela behehitiko solairuan. Bertalde, eraikin zaharrean egokitzapen guti batzuk eginda, nahiko leku geldituko da Lehen Hezkuntzako premiak asetzeko».

### LELOA ETA LOGOA

*Bikin bat in* leloa aukeratu dute. Lasherasen hitzetan, «Bi da hitz giltzarria: Nafarroa Oinez bigarren aldiz eginen da Lesakan. Edozein komunikazio gutienez biren artekoa da. Ikastolaren sorrerako haurrek, gaur guraso direnek bigarren belaunaldia osatu dute, euskararen transmisioa ziurtatuz. Nafarroa Oinez helburua ikastolaren egungo eraikinaren ondoan bigarren bat

egitea da. Nafarroa bitan banatua dugu, Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea... Baina aldi berean bi horiek bat egiten dute». Biz bat egin, birekin bat egin, bikin bat in... Gisa honetara, «auzolanaren ideia islatu nahi izan dute eta herriko euskalkian eta ahozko euskararen idatzitako: «batetik, Ikastola sortu aitzinetik, euskararen transmisioa alfabetatu gabeko guraso, aitzai-amatxi eta antzinagoko arbasoen ahotik egiten zenez, beraientzako keinu bat izan da. Bertetik, egungo gazteek sare sozialetan horrelako laburdurak erabiltzeko ohitura handia dute. Gure arbasoen eta gure gazteen belaunaldien arteko esaldi-zubi moduan ere uler daiteke leloa». Ikurrak, berriz, ikastolaren atarian dauden intxaurrondoaren bi hosto irudikatzen ditu.

**Eraikinak behar adina lekurik ez duela eta, hainbat obra egin nahi dituzte Nafarroa Oinezarekin.**

ONGI PASA FERIEGAN!

**borzruda**

IMPRESA - KOPISTEGIA

948 631 521

material guztietan inprimatzen dugu  
hamisetak / oparitzeko artikulua

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

**24** ORDUZ

**Bidasoa** GASOLINDEGIA

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**TRANSPORTES IRIGOYEN**

ONGI PASA FERIAKI!

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

**ZOANSA**

VW SEAT AUDI HYUNDAI

Ongi pasa feriak!

**MARKA GUZTIEN KONPONKETA**

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: [zoansa@zoansa.com](mailto:zoansa@zoansa.com)

Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)

**kattagorria** lenteria mertzeria

Behoko plaza, 10 LESAKA · 948 627 514

Baserritar jantzien **KOLEKZIO BERRIA** ESKAINTZA HANDIA!!

**FERIETAN, EGUN OSOA IREKIA**

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUT!







parte hartu zuen «aita, ama eta osabak, erraten zidaten: 'Zuk aunitz erraten duzu hemen sukaldean eta egundaino ez duzu Lesakara behi bat eraman. Lesakako ferien aitzineko egunean oroitzen naiz kristoren denbora txarra zela eta etxean ez nuen erran aurkeztu behar nuenik. Lagun bati erremonkea eskatu eta behi bat aurkeztu nuen». Eta ezustekoa jaso «behi harekin lehenbiziko saria lortu nuen. Nere poza eta etxeko poza! Ikaragarria izan zen». Bakarrekini hasi, «ondoko urteetan lauzpaborts eraman eta gaur egun hogeit bat buru eramaten ditut».

**«Gurasoak eta osaba dira urtean 365 egunean behien gainean egoten direnak. Beraiek gabe ez nuke izanen horrelako behirik. Meritu handiena beraiena da»**

Lehiaketara azizendak aurkeztu aitzinetik «prestatu egin behar izaten dira eta jakin egin behar da behia sokatik ibiltzen ere, ez baita zakur bat». Horregatik, sei hilabeterekin hartu eta erakusten hasten zaie «sokatik hartu eta aunitzetan lurrera botatzen zaitu behiak edo hagitz bizi bada behia traktoreari lotu behar izaten da. Pixka bat ibiliz poliki-poliki jartzen dira. Tiraldi batzuekin oroitzen dira».

#### URTEROKO HITZORDUA

Aurtengo Lesakako ferietarako ere prest ditu azizendak eta dagoeneko lehiaketan beteranoa den arren «egun batzuk lehenagotik urduritasun puntu bat» nabaritzen hasten omen da». Eguna iritsitakoan berriz, zerura begiratzea izaten da lehenbiziko pausotakoa, eguraldiak asko baldintzatzen baitu feria eguna «iaz

euria egin zuen. Ea aurtengoan eguraldiak laguntzen duen. Hori da saririk handiena». Bistakoa baita, «euriarekin behiek ez dutela horrenbeste luzitzen eta jende gutxiago izaten dela».

#### ESKER ONA

Feria egunean azizendak aurkeztu eta sariak lortzea «urte guztian egindako lanaren saria» dela dio «aitzineratz segitzeko animoa da, momentu txarrak ahazten dira». Etxekoentzat ere hagitz berezia da «poz handia da, gurasoentzat eta osaba Estebanentzat. Beraiek dira urtean 365 egunean behien gainean egoten direnak. Baserrian bizi dira eta ordu guztiak han ematen dituzte. Ez baziren beraiek ez nuke izanen horrelako behirik. Meritu handiena beraiena da». Emazteari ere eskerrak eman nahi dizkio «dudan afizio hau ulertzeagatik». Horrekini batera, inguruko laguntza ere ezinbertzekoa dela azpimarratu nahi izan du «makinaria baduzu baina laguntza behar da. Zorionez hemen laguntasun hori mantentzen da. Belarrean laguntzen ditate familiakoek eta bizilagunek».

#### ETORKIZUNA

Abeltzantzaaren egoeraz galdetuta, etorkizuna beltz ikusten du «gaur egun baserrian aunitz ari dira hustutzen. Ez dakit hementik urte batzuetara zer pasako den. Horrela segitzen badu, sasiak hartuko dituzte». Egoerari irtenbidea emateko lehendabiziko lana «Nafarroako Gobernuak gauzak erraztea» dela uste du «horrenbarte traba ez paratzea». Eta dirulaguntzak beharrezkoak diren arren, bere ustez, «hobeto geundeko azizendagatik egiaz balio duena pagatuko balitz». Bizitzeko adina ematen ez duenez, «afizio bezela jendearen artean zabaltzeko ahalegina egin behar da».

## Bortzirietako azizenda hoberenen bila

Ferien baitan, Bortzirietako azizenda lehiaketa eginen dute bertze urte batez. Goizeko 11 etatik aitzinera, Plaza Zaharrean eta inguruko karriketan egonen dira ikusgai azizendak eta eguerdi partean eginen dute sari banaketa.

Lehiaketa kategoriatan desberdinetan banatua dago. Behiak suitza, holandesa eta haragitako kategorietan banatu eta maila bakoitzeko hiru onenak sarituko dituzte. Zaldietan ere sariak izanen dira hiru onenentzat. Eta azken bortz urteetan bezala, pottoka, montura, poni eta ahari onenek ere saria jasoko dute.

**IÑAKI JANARIDENDA**  
- ONGI PASA FERIAK -  
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

**urtek**  
water technologies  
Uren tratamendua  
Potabilizazioa, desmineralizazioa, deskaltzifikazioa, osmosia, filtrazioa, berrerabilpena, depurazioa, instalazioen mantenua.  
T. 948 638 118 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

**ITURBENA**  
ONGI PASA FERIAK  
kafetegia  
Koskontako bidea 5, behea - LESAKA

**KOXKONTA**  
JATETXEA | LESAKA

**FERIETAKO MENUA**

30€  
BEZ Barne

Etxeko aperitiboa  
Entsalada mista  
Bertako ilar-goviak sakramentuekin  
.....  
Entrekota hornigaiarekin  
edo  
Legatz bete  
.....  
Postrea, ardoa, ura  
eta kafea

Ongi pasa feriak!  
T. 948 627 519



## BERA

GIZARTEA → URRIAREN 20KO OSOKO BILKURAN BEHIN BEHINEKOZ

# 5 milioi euroko udal aurrekontua onartu dute

Urte hasieran egin gogo den Lesaka-Bera ur hornidura proiektua izanen da inbertsiorik handiena

## TTIPI-TTAPA

Udaleko Osoko Bilkurak urriaren 20an aho batez behin behinekoz onartu ditu 2017rako aurrekontuak, EH Bildu, Herrirako eta UPNko zinegotzien aldeko bozkekin. 5 milioi euro pasatxokoa izanen da aurrekontu osoa, 2016koan baino 170.000 euro gehiago.

Atal gehienetan ez dago aldaketa nabarmentik, eta oro har, zeuden horretan mantenduko dira ia sail guztiak. 2015ean eta 2016an ez du mailegurik eskatu Berako Udalak eta bide horretan segitu nahi du, udalaren zorpetze maila jausten segituz. Josu Irtatzoki alkateak aipatu zuenez, «sarren atalean aipatu aurtentzen 2017-2019 Hirurteko plana martxan jarriko dela eta horri esker azpiegiturak, hau da ur hornidura, saneamentua eta zola-berritze la-

nak egiteko dirulaguntzak izanen direla». Hau baliatuz, Agerra auzoko ur-sarea berritu nahi dute, ur hornidura eta saneamentuko azpiegiturak berrituz eta euri urak eta ur zikinak bereiziz. Herriko bertze bide eta karrikaren bat moldatzea ere aurreikusten da. Lesaka-Bera ur hornidura proiektua egiteko 1.300.000 euro inguruko dirulaguntza mantentzen da 2009-2012 Planetik eta obra hori urte hasieran egin nahi luke Udalak. 2017an ezohiko bertze diru sarrera batzuk ere izanen dira, alde bateatik Komiziarreko pinadiaren salmentarekin 180.000 euro inguru lortzea aurreikusten da eta Uxane etxearen salmentarekin 145.000 euro. Aipatu bezala, diru sarrera hauei esker, krediturik eskatu gabe egin ahal izanen dituzte 2017ko inbertsioak, udalaren zorpetze maila jaisten segituz.

## 2 MILIOI INBERTSIOTAN

Inbertsioen atala, 2 milioi euro ingurukoa, iaz bezala Lesaka-Bera ur hornidura proiekturako izanen da. Egitasmo osoaren aurrekontua 1.456.558,55 eurokoa da (gehi BEZa), Nafarroako Gobernuaren

%90eko dirulaguntza izanen luke, gainerakoa ordaintzeko bi udalen artean adostu dute, Lesakako Udalaren ekarpena %3,5a izanen da eta Berako Udalak, berriz, proiektuaren %6,5 hartuko du bere gain.

Mendiko lanetarako, landaketak, garbiketak, pisten moldaketak eta gisakoak egiteko 130.000 euro inguru erabiliko dira, Agerra auzoko sareak berritzeko 80.000 euro edo karrikak moldatzeko 35.000 euro. Ez ohiko diru sarrerak baliatuz, 95.000 euro aurreikusitako diru erosketak eta expropiatzen diren Garapen Jangarriaren bidean inbertsio garrantzitsu aurreikusten dira. Alde batetik biomasa sarea ikastolaraino luzatzeko 40.000 euro erabiliko dira. Alkateak aipatu zuenez, «biomasa plantan bi galdara daude, bat 500 kw-koa eta bertzea 250 kw-koa, bi galdara hauek gaur egun potentzia soberan daukate hornitzen dituzten eraikuntzak berotzeko. Hau dela eta sarea luzatzeak instalazio hau aprobetxatzea ekarriko du». Bertze aldetik, led argiak jartzeko 30.000 euro erabiliko dira. «Ikusirik aurtentzen Alzate karrikaren egindako aldake-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Kilo eta erdiko onddoa

Urriaren 26an 1,568 kiloko onddoa aurkitu zuen Imanol Hercek. Argazkian Xabier Perez agertzen da onddo ederrarekin.

tak emandako emaitza onak, %70 inguruko aurrezpena, bide honekin segitzea aurreikusten da argi puntu gehiago aldatuz». Etxebizitzak berritu eta alokairuan jartzeko 20.000 euro aurreikusitako diru eta bakegintza eta bizikidetzari dagokionez, oroimen historikoari lotutako *Oroitharri* proiekturako (herri antzerkia, testigantzen bilketak...) 15.000 euro bideratuko dira. Bertze lanen artean, bigarren solairua eta ganbara libratzeko udaletxeko artxi-

boa sotoan jartzea eta lixutegiren bat moldatzea ere aurreikusten dira.

Hasierako onespenaren ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan jarriko dute udal aurrekontua, 15 laneguneko epean jendaurrean egonen da herritarrek eta interesatuek aztertu eta nahi dituzten errekla- zioak jar ditzaten eta epe hori iragan ondoren, errekla- zioari ez batego, aurrekontua behin betikoz onetsitatzat hartuko da.

## Ba al zenekien

Santa Zeziliako emanaldia azaroaren 21ean, astelehenean 18:00etan eskainiko duela Isidoro Fagoaga Udal Musika eskolak eskolan bertan.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**BAR Botxo OSTATUA**  
Zalain · BERA · 948 630 052



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 23AN

# Lurraren Egunak osasuntsu bete ditu 30 urteak

Gasna eta sagardo lehiaketetan Garmendiko borda eta Maletenekoak garaile

## TTIPI-TTAPA

Udazkeneko eguraldi goxoa lagun, jendetza bildu zen urriaren 23an Beran, Gure Txokoak hogeita hamargarren aldiz antolatutako Lurraren Egunean. Ehun eskulangile baino gehiagoren eta 40 elikadura produktuen postuak hedatu ziren Altzateko karrikan, Altzateko Plazan, Ricardo Baroja eskolan eta besta egun honetan gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari den Illekuetako zubiko bertze aldean ere, Merkatuko Plazan.

Hemen, garai bateko laborantza tresna eta postuekin batera, barazkiak jarri dira aurten eta Martikoren 30. urteurrenaren harira antolatutako *Txiki Chef* lehiaketako saridunek pintxo bikainak eskaini zituzten dastatzeko.

30. Gazta lehiaketan hameka ale aurkeztu ziren eta horien artean, ia bezala, Garmendi-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Lehen aldiz, barazkiak Illekueta aldeko Merkatuko Plazan jarri dituzte Lurraren Egunean.

ko bordako Sokorro Almandozek eraman zuen 220 euroko lehen saria eta Arantzako Seroenbordako Margarita Madariagak bigarrena, 100 eurokoa. 19. Sagardo lehiaketara, berriz, 19 botil sagardo aurkeztu ziren eta horien artean, Maleteneko Alejandro Alzugurennek aurkeztutakoak eskuratu zuen 200 euroko lehen saria. Lesakako Lauen Ametsako Joxe Elgorriagak 75 euroko bigarren saria eraman zuen.

Egun osoan, besta giroa bizitu zen eta horretan lagundu zuen musika eskolako trikitixa taldeak, musika bandak, txistulari eta txalapartari taldeek eta musika eskolako talde zel-

tiarrak. Ikastetxe ezberdinetako ikasleek ere, beren produktuak eta zozketak salgai paratu zituzten, gehienek ikasbidaiak ordaintzeko. Gure Txokoa elkarteak heldu den urteko egitaraua eta Eguberrietako loteria salgai jarri zuen eta margo lehiaketako hirugarren saria lortu zuen margolana ere zozketatu zuen. Hain zuzen, 523 zenbakiaren jabea-ri egokitu zaio margo-lana. Irabazlea elkartearekin kontaktuan jarri behar da (626309438 edo [guretxokoaelkar-tea@gmail.com](mailto:guretxokoaelkar-tea@gmail.com)). 30 urteotan antolatzailerak izan diren Bittori Telletxea eta Juan Mari Ado omendu zituen Udalak.

Ikastolako aretoan,

Rosa Errandoneak paratutako argazki erakusketak ikusgai izan zen, Urtebete Beran izenburua zuena. Aipatzekoa da Errandoneak 1995ean lehen erakusketa paratu zuenetik 3.629 argazki eta prentsa erre-korte plazaratu dituela.

Bezperan, hamargarren barazkiopil lehiaketa ere egin zen. Hameka koadrilen artean, Itxaso, Gurutze eta Ainhoa taldeak lortu zuten lehen saria, Juan Mari Adoren zurlana, 100 euro eta kaja bat ardo. Bigarren saria, kaja bat ardo, Zelaieta Express taldeak eskuratu zuen.

Goizean, Jakoba Errekondok solasaldia eskaini zuen Beralandetan.

## FLASH

### Maitasun erromantikoaz

Goldatz emakume talde feministak antolatua *Maitasun erromantikoa ezbaian* solasaldia eskainiko du Irantzu Varela azaroaren 12an, larunbatean 18:00etan Beralandetan.

### Heriotz duina eta eutanasia

Nafarroako DHEko buru den Manuel Eciolazak *Heriotz duina eta eutanasia* solasaldia eskainiko du azaroaren 14an, 18:30ean Beralandetan.

### Euskaraz ongi ez dakiten gurasoei

*No sabemos (bien) euskera, ¿Cómo les ayudaremos?* izenburua duen solasaldia eskainiko du Paula Kasaresek azaroaren 17an, 17:00etan Beralandetan, Euskara Mankomunitateak antolatua.

### Haurrentzako ikuskizuna

2 princeses barbudes taldeak *Gaeko enziklopedia koxkorra* haurrentzako ikuskizuna eskainiko du azaroaren 19an, 17:00etan Kultur Etxean, Labiagak antolatuta. 3 euro.

### Dantza emanaldia

Olatz de Andresek *El cielo ahora* dantza emanaldia eskainiko du azaroaren 20an, igandean 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 6 euro kobratuko da.

  
**okaNek**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Enaut & Nekane  
Kanttonberri 12 • BERA  
Tfno/Fax: 948 630 018

  
**xuga**  
tel. 948 631 519  
www.xugabera.com  
www.facebook.com/xugabera

  
948 630 786  
Alzate, 21 • BERA



## LESAKA

GIZARTEA → URRIAREN 24AN

# Harriondoa Kultur Etxeko liburutegia inauguratu dute

Herriko Etxeko hirugarren solairutik 18.000 bolumen eraman dituzte liburutegi berrira

## Aitor AROTZENA

Abuztutik itxita zegoen liburutegia, Herriko Etxeko hirugarren solairutik Harriondoa Kultur Etxeko egoitza berrira lekuz aldatzen aritu baitira bertan zeuden 18.000 bolumen baino gehiago. Orain, behin lan horiek bukatuta, urriaren 24an, Liburutegiaren Nazioarteko Egunean hain juxtu, ireki zuten hemendik aitzinera Harriondoan egonen den liburutegia.

Udalak inaugurazio ekitaldi ttiki bat egin zuen eta bertan izan ziren Ana Herrera, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirola eta Gaztedia Departamentuko kontseilaria; Asun Maestro



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Udal agintariak, inguruko herrietako alkateak eta liburuzaina, inaugurazioan.

Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria; Jose Luis Etxegarai alkatea eta zenbait zinegotzi, baita Interneten kontsultak egiteko sei ordenagailu ere. Haurrendako eremua, helduendako irakurketa eta estudio eremua, hemerroteka, ikusentzueneko eremua eta talde-lanetarako aretoa izanen ditu. Astean 30 orduz irekia egonen da liburutegia neguko orduetara, 15:00etatik

Liburutegi berriak 380 metro koadro erabilgarri izanen ditu (gaur egungoak 246 ditu) eta

irakurketarako 82 toki (58 helduendako eta 24 haurrendako), baita Interneten kontsultak egiteko sei ordenagailu ere. Haurrendako eremua, helduendako irakurketa eta estudio eremua, hemerroteka, ikusentzueneko eremua eta talde-lanetarako aretoa izanen ditu. Astean 30 orduz irekia egonen da liburutegia neguko orduetara, 15:00etatik

21:00etara. Udako orduetara, 08:30etik 14:30era da.


Gaur egun 852 erabiltzaile ditu liburutegiak (666 heldu eta 186 haur eta gaztetxo). 2015eko datuei dago kienez, 15.000 bisitari izan zituen eta Internet erabiltzeko 3.400 saio egin ziren. 3.000 dokumentu utzi zituzten iaz liburutegian (%60 liburak eta %40 ikus-entzunezkoak).

## 2017KO NAFARROA OINEZ LESAKAN

### Oinez Denda zabalduko dute larunbatean

Azaroaren 3an egin zen Tantiurumairu ikastolak antolatuko duen 2017ko Nafarroa Oinez-en aurkezpena Iruñean. Aitor Iratzoki zuzendariak eta Amaia Lasheras lehendakariak Nafarroako 15 ikastolen eta Nafarroako euskaltzale guztien bilgune izan nahi duen ospakizunaren helburuak aipatu zituzten prentsaurrean eta horren berri zabalagoa duzue fe-

riei eskainitako gehigarrian. Oraindik urtebete falta da horretarako, baina larunbat honetan, azaroak 12, Oinez Dendaren inaugurazioa eginen dute Bittiria karrikaren 26an (Laminacionesen garai bateko bulgoetan) eta azaroaren 27an eskualdeari zuzendutako aurkezpena egiten da Harriondoan, arropa eta materiala erakusteko desfile eta guzti.



## FLASH

### Korrontzi Band emanaldia hilaren 19an

Sanferminen aitzineko asteburuko emanaldia euriarengatik bertan behera utzi ondotik, azaroaren 19an udal pilotalekuan eginen dute Korrontzi Band emanaldia Korrontzi taldeak eta herriko musika bandak, 19:00etan eta 22:00etan. Uztaileko emanaldiko sarre berriarengatik trukatu beharko da eta orduan sarrera ez zutenek ere izanen dute erosteko aukera.

### Bertso gaztain jatea Basurden

Bortzirietako Bertso Eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzaz antolatuta bertso gaztain bazkaria izanen da azaroaren 19an, 14:00etan Basurden. Alaia Martin eta Agn Laburu ariko dira bertsoetan, Josu Goikoe txea gai-jartzailearekin. Prezioa: 7 euro.

### Haurren Eguna

Irain eskola eta Tantiurumairu ikastolako guraso elkarteek Haurren Eguna antolatu dute azaroaren 20an. Igarde goizean haurrendako jolasak izanen dira Harriondoa atarian eta arratsalde, berendua eta txantxariak plazan.

### Santa Zezilia

Musikarien Egunean harira, zenbait emanaldi izanen dira. Azaroaren 22an, astearte arratsaldeko 6etan Musika Eskolako emanaldia izanen da Harriondoan. Azaroaren 25ean (20:00) eta 26an (18:00) musika taldeen kontzertuak izanen dira leku berean.



GIZARTEA → AZAROAREN 5 ERAKO

## 100 dozena uso baino gehiago harrapatu dituzte sareetan

Azken 8 urteetan ez zuten muga hau gainditzerik lortu

**Irune ELIZAGOIEN**

Urriaren 29an bota zuten altxaferoa usategietan 100 dozena uso harrapatzera ailegatu baitziren. 2008. urtetik ez ziren 100 dozena harrapatzera iritsi eta beraz aurtengoan badago zer ospatu. Azaroaren 20 arte luzatuko da denboraldia eta urriaren 30a arte 118 dozena inguru harrapatuak badituzte ere, oraindik gehiago lortzeko esperantza daukate usazaleek.

**Nafar hegoaldeko euskarari laguntzeko saskiak**

Nafar hegoaldeko euskarari bultzada emateko 50 euro balio du-

ten saski zuri eta beltzak eskatu daitezke Kultur Etxean, Herriko Ostatuan edota Herriko Okindegian. Saskietan olio, ardoa, zainzuriak, arroza, txokolatzeko gutziak eta bertze hainbat produktu daude eta azaroaren 8ra arte egin daitezke eskaerak aipatutako lekuetan.



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN  
Oraindik azaroaren 20ra bitarte izanen da kopuru hori handitzeko aukera, baina urri hondarrera bitarte 118 dozena uso harrapatuak zituzten Usategietan, azken zortzi urteotako kopururik handiena.



ARGAZKIA: INMA GARCIA ETA ALAITZ DANBORIENA

### Pintxo-Pote programaren grabaketan

ETB1eko *Pintxo-pote* programakoak urriaren 19, 20 eta 21ean grabaketak egiten ibili ziren Etxalarren. Bertzeak bertze usategietan, Herriko Ostatuan, Elutsan, La Basque jatetxean eta elizan egin zituzten grabaketak eta okerrik ez bada azaroaren 15ean, 22:15etan emanen dute ETB1n.



armadenda  
andueza 

Pootxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net



## ARANTZA

KULTURA → ERREPASOA

# Aniztasuna eta parte hartze handia kultur egunetan

Otsarrako gaztak irabazi du gazta lehiaketa

**Nerea ALTZURI**

Urriaren akabailatik azaroaren lehenera, giro ezin hobearrekin joan ziren Kultur Egunak.

Urriaren 29an, Aitziber Almandoz Larralde herriko gazteak arnas fisioterapiako teknikak azaltzen dituen *Su galduaren bila* ipuina aurkeztuz hasiera polita eman zioten herritarrek asteburuari. Aski aurkezpen polita eta hunkigarria izan zen.

Arratsean, Anje Duhalderen kantaldian ere, jende multzoa hurbildu zen eta Gure Esku Dago dinamikaren alde, herritar batzuek egin dako opil goxoak dastatu ahal izan zituzten hurbildutakoek.

Igandean, Niala magoak magia hornitu zuen arratsaldea eta eskolako gimnasioa bete egin zen. Mus eta parxis txapelketak ere egun horretan egin ziren Ekaitza Elkartean.

Astelehen arratsaldean, 60 lagun bildu ziren Anjel Oiartide Gure Esku Dago mugimenduko bozemaileak eskainiriko solasaldian. Bortzirietako Gure Esku Dago dinamika lanean ari da eta horren berri jaso zen, bertzeak-bertze,

heldu den urteko udaberrian, Bortzirietan erabakitzeko eskubidearen aldeko aldeketen olatura batu baita.

Bi egunez, 1943an, Eguzkialdea auzoan erori zen gerrako hegazkin alemaniarren inguruko argazki eta datu erakusketa izan zen Baskulan, herritar batzuek erreskate lanetan parte hartu baitzuten. Herriko adinekoren testigantzen berri jasotzeko aukera ere izan zen.

Azaroaren lehenean, Ekaitza Elkartek antolatutako 21. Baserritarren Eguna ederki iragan zen. Ahariak, txoriak, pottokak, ukenduak, gozokiak, barazkiak, zerriak, eskulanak, taioak, egutegiak, kami-setak... Erakusketa eta salmenta postu ugari. Eta Guraso Elkartek jarritako ostaldea ere hantxe zen frontoian, urtero bezala. Herriko trikitilari eta panderojoleek ere saio polita egin zuten.

Gazta lehiaketan, hamar gazta aurkeztu ziren: Otsarrako gaztak irabazi zuen; bigarren, Serorenbordako Margari Madariagarena gelditu zen (Berako Lurraren Egunean ere bigarren); eta hirugarren Moren-baitakoa. Ahari lehiaketan, bi sariak Simoneko aziententzat izan ziren.

Bertako produktuez osaturiko zarea, berriz, Xebe Iparragirrerri tokatu zitzaion.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kultur Egun ederrak izandu dira, eta herritar nahiz bisitari aunitzek parte hartu dute.

## AZAROAREN 11N

### Paris 365 Fundazioarentzat janari bilketa

Lehen ere aipatu izan dugu Paris 365. Iruñaldean, beharrean daudenen alde lanean ari den fundazioa da. Eta aurten ere janari bilketa egingen da herrian. Iaz bezalaxe, Eguberri inguruan bertze kanpaina batzuk izaten direla kontuan hartuz, janari bilketa aitzineratzea erabaki da.

Kanpaina honetan parte hartu nahi dutenek azaroaren 11n, 10:00etatik 12:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara eraman dezakete laguntza Bortzak Bat kooperatibara.

Lagundu nahi dutenek eta egun horretan hurbildu ezin direnek, berriz,

948634030ra deitu dezakete, azaroaren 11 baino lehen. Etxeraino joanen baitira eman nahi den horren bila.

Fundaziotik ondoko janariak eman daitezkeela adierazi dute: esnea, olioia, azukrea, *cola cao* eta latako kontserrak. Janari horiek hamabortzero behartsuei banatzen dizkieten saskiak osatzeko erabiltzen dituzte.

Nahiago duenak ekarpena diruz egin, herriko banku bulegoetan irekita dauden kontuetan egin dezake.

Aitzinetik eskerrak eman ditu Paris 365 Fundazioak. Gogoratu, iazko kanpaina 3.805 kilo janari bildu zirela.



GIZARTEA → AZAROAREN 18AN BERAKO BERALANDETAN

## Greziako errefuxiatuen egoera eta bolondresen errealitatea mintzagai

Help Na,  
Larrialdi  
Humanitarioeta  
rako  
Nafarroako  
Suhiltzaile  
taldearen  
eskutik

### TTIPI-TTAPA

Greziako errefuxiatuen egoera eta bolondresen errealitatea solasaldia eskainiko du Help Na, Larrialdi Humanitarioetarako Nafarroako suhiltzaile taldeak azaroaren 18an, ortzirale arratsaldeko 7:30ean Beralandetan.

Help-Na Nafarroako suhiltzaile eta boluntario batzuk osatutako Gobernu Kanpoko Erakunde berria da. Aurten 30 boluntariok parte hartu dute.

Tartean zegoen Joxean Ortega, Iganztiko eskolako irakaslea. Berak aipatu digunez, «nere gelan, Iganztiko eskolako 3. ziklo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joxean Ortega eta Help Na GKEko bertze boluntario batzuk Grezian lanean uda honetan.

an, iazko ikasturtean Gerra eta Pobrezia iruzko proiektu bat egin genuen. Honen harira suhiltzaileen GKerir iruzko lehen berriak entzun nituen. Kontaktua lortu, deitu eta bertara joan nintzen».

Egoera latza eta bortitza topatu du: «jende normala, gu bezalakoak, beraien lurra ez den leku batean dira, 24 orduz, geldirik deus egin gabe, ez dietelako deus

egiten uzten».

Albistegietan hainbertze agertzen ez bada ere, egoera ez dela moldatu aipatu digu Ortegak. «Baretu da, interesa haundia dagoelako horretarako, baina han diraute 50.000 lagun, haur, gazte, heldu eta zahar, erabat etsituak, guttieneko beharrak nolabait asetuta baina psikologikoki deseginak».

Orain, egoera horren

berri zabaltzeko ardura hartu du Help Na elkarrekin, izan ere «hemengo jendeak ez daki deus ere, edo gutti daki. Munduan dagoen bertze desgrazia bat da»

Jendea Beralandetan eskainiko den hitzaldira etortzeko animatzea nahi luke, «boluntarioen mundua eta siriarrak errefuxiatu eta greziar biztanleriaren egoera ezagutzeak merezi du eta!».

### OSASUNA

Estresa gobernatzeko saioak Lesakan eta erretzeari uztekoa Beran

Estresa nola gobernatu tailerrak eskainiko dituzte azaroaren 8, 15 eta 22an Lesakako Udalak Koskonta Bideko 7.eko bigarren solairuan, 11:30etik 12:30era. Lesakako Osasun Zentroak antolatuta eta bertako langileek eskainiko dituzte tailerrak eta izen ematea ere Osasun Zentroan egin behar da.

Bertze aldetik, erretzeari uzteko dauden aukerak erakusteko tailer motibazionala eskainiko dute azaroaren 28an, 11:00etatik 12:30era Beran. Hau ere Lesakako Osasun zentroak antolatuta du eta bertako langileek eskainiko dute.

**aterpe**  
albergea jatetxea ostua  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**MARTIX**  
Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450  
Erakusketa, Proiektu eta  
Instalazio Elektrikoak

**BORDAKARIA**  
Gure Haragia  
Nuestra Carne  
Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

**MARTIKO**  
Martiko  
Pol Zalaín, s/n.  
31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Ahatetikian adituak eta arituak

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astelehenetik  
ortziralera  
08:00etatik  
17:00etara



# SUNBILLA



ARGAZKIA: BIDADAL IBARRA

Ulibeltzak elkarteko mendizaleak Txindokiko kaxkoan.

**KIROLA** → BIZIKLETAN, KORRIKA, MENDIAN...

## Indartsu segitzen dute herriko kirolariek

Koldo Herrera txirrindulan, Jon Maritxalar lasterka, Ulibeltzak taldekoak mendian, bertzeak bertze

### Maidar PETRIRENA

Kirol arloan hainbat aipamen ezberdin egiteko aukera ematen du herriko kirolariek egindako lanak.

Alde batetik Koldo Herrera Urroz txirrindulariak bere karrerarekin segitzen du eta denetan fin gainera. Arguedasen izan zuen urriaren 23an eta laugarren postua lortu zuen. Urriaren 29an, berriz, Peraltan zortzigarren postua lortu zuen.

Bertzetik, aipatu Jon Maritxalar Etxenike, bertze kirolari finak ma-

ratoi erdia egin zuela Valentzian Erreka triatloi taldeko bere bi kideekin.

Ulibeltzak mendi taldeak ere bere denboraldi berria hasi du gaurgero eta nola hasi gainera! Eguraldi ezin hobea izan zuten urriko azken igandean egindako irteeran eta partaidetza aldetik ere aldioro gehiago. Txindokira atera ziren urriaren 30ean, 1.346 metro-tara dagoen mendira.

Kirol kontuekin akitzeko, aipatu Bularreko minbiziaren aurkako lasterketa erraldoia egin zela urriaren 23an Iruñean. Bertan antolakuntza nahiz parte hartzen sunbildar kuadrilla izan zen.

### Lehen sorospen ikastaroa

Lehen sorospen ikastaroa izanen da azaroa-



ARGAZKIA: NAGIORE MADARIAGA

### Sunbildarrak ere omendu ditu Arkupeak elkarteak

Sunbildarrak ere omenduak izan ziren Arkupeak Elkarteak ospatu zuen Bazkidearen egunean, urriaren 20an, Gorraizen. Bertan 500 pertsona inguru elkartu ziren beraien besta ederra ospatzera eta horrekin batera omenaldi ezberdinak egin zituzten. 85 urtekoen artean bi sunbildar genituen: Fulgencio Iriarte Goñi eta Irene Alzuri Ezkurra. Urrezko ezteietan berriz sunbildar bikote bat izan zen omendua: berriz ere Fulgencio Iriarte Goñi bere emazte Elena Irurieta Petrirenarekin. Egun ederra pasatu zuten familikoan artean, bertan baitziren seme-alaba eta bilobak argazkian ikusi daitekeen bezala. Zorionak denei.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

### Eskolako ikasle eta irakasleak gaztain biltzen

Urriaren 14an Eskolako haur eta irakasleek Bertizera joateko irteera antolatua zuten, baina eguraldi txarra atera zenez bertan behera utzi zuten. Urriaren 20an, berriz, gaztain biltzera joan ziren eta ondoren goitiko eskolan denak elkarrekin gaztainak erre eta jan zituzten. Hagitz ongi pasatu omen zuten.

ren 11n, ortzirale arratsaldeko 5etatik 7etara bitarte udaletxeko hiru-garren solairuan. Guztiz praktikoa izanen da eta arropa erosoa ekartzea gomendatzen dute.

### Ba al zenekien

**Bustitz Ostatuko mus txapelketa hasi dela azaroaren 4an. Ohiturari eutsiz, ortziralero arratsaldeko 10etan izanen da eta beraz, animatu parte hartzera.**





GIZARTEA → AZAROAEN 27RA BITARTE

# Baztan-Bidasoko XXIV. Ehiza Jardunaldi Gastronómicoak abiatu dira

Eskualdeko bederatzi jatetxek dute eskaintza

## TTIPI-TTAPA

Bere garaian Bertizko Partzuergo Turistikoak eta orain Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak antolatzen dituen ehiza jardunaldi gastronomikoen 24. edizioa urriaren 28an hasi eta azaroaren 27ra arte egiten ari dira. Eskualdeko Bederatzi jatetxek parte hartzen dute jardunaldietan, 27 eta 40 euro arteko menuak eskainiz: Bortzirietan, Aterpe eta Burlada Arantzan eta La Villa Igantzin; Malerrekan, Donamariako Benta; Baztanen, Arizkungo Ordoki, Elbeteko Posada, Iruritako Olari eta Oronoz Mugairiko Urgain; eta Urda Zubin Montxo Jatetxea. Urriaren 25ean aurkeztu zituzten jardunaldiak Elbeteko posadan Irauliko Haizea Destribatsek, Elbeteko Posadako Belen Urrutiak eta Iruritako Olari jatetxeko Ru-

ben Garatek. Baztan-Bidasoa Turismoak kartel bat eta jatetxe guztiak biltzen dituen eskuorri bat ere argitaratu ditu. Eskuorri hauek, jatetxeetan eta informazio turistikoko puntuetan eskuragarri egonen dira baita [www.baztan-bidasoa.com](http://www.baztan-bidasoa.com) webgunean eta sare sozialetan ere. Menu guztiak biltzen dituen eskuorria ere argitaratu du elkargoak. Material grafiko honetarako, orain arte eskualdeko margolari baten margolana erabiltzen zen. Aurten, ordea, iaz lehen aldiz antolatu zen argazki lehiaketako argazki irabazlea erabili dute, Javier Salaberriaren *Taco de ciervo*.

## ARGAZKI LEHIAKETA BIGARREN URTEZ

Hain zuzen, Ehiza Jardunaldiko II. argazki lehiaketa ere antolatu da. Parte hartu nahi duenak jatetxe hauetako ren batera hurbildu, menua eskatu eta dastatu -ko duen platerari argazkiak atera eta [info@baztanbidasoa.com](mailto:info@baztanbidasoa.com) helbidera bidali beharko di-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Haizea Destribats, Belen Urrutia eta Ruben Garate aurkezpenean.

tu. Irabazleak Baztan-Bidasoko jatetxeren baten 2 pertsonentzako bazkaria irabaziko du. Oinarriak jatetxeetan eskuragarri izanen dira.

## SOLASALDIA ERE

Aurten Baztango Ehi-za eta Arrantza Elkarteak ere bat egin du jardunaldiekin eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkar-

goarekin batera *Kirola, Ehiza eta Gastronomía* solasaldia antolatu du azaroaren 25ean, 19:30ean Iruritako Olari jatetxean.

## TEEH-N BIRZIKLAPENARI BURUZ

### III. Erakusleho lehiaketa antolatu dute

#### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, Tresna Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinak (TEEH) kudeatzeko sistema integratuen (SIG) entitate kudeatzaileek (Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofímica, Ecoloc, Ecolum, EcoRAEE, Ecotic, ERP-Europako Birziklatze Plataforma- eta Tragamóvil), eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketak (GAN-NIK), Nafarroako hondakinaren mankomunitateen eta Osasuna Fundazioaren laguntzaz, "EEHen balorizazioari buruzko erakuslehoen lehiaketaren III. edizioa antolatu dute, salto-kiel zuzendua, *TEEHak gurea inbalditzen ari dira* (RAEE INVADERS) lelopean.

Nafarroako Gobernuak zenbait hitzarmen ditu sinatuak TEEHak kudeatzeko sistema integratuekin (SIG) -Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN-NIK) arduratzen da haien garapenez eta dinamizazioaz-, eta, hain zuzen ere, haien parte diren heda-

pen- eta sentsibilizazio-jarduketan barnean kokatu behar da lehiaketa hau.

Nafarroako Foru Komunitatean dauden merkataritza-establezimenduek parte hartzeko aukera, baldin eta TEEHen kudeaketari lotuta badaude (elektronika, telefonia digitala, burdindegia, argiztapena, eta abar).

Erakuslehoak sortzea lehen eta bigarren saries gain, sare sozialetan komentario gehien bildutako erakuslehoak hirugarren saria ere jasoko du. Erakuslehoek azaroaren 7tik 18ra bitarte egon beharko dute muntaturik, horixe baita lehiaketaren aldi balioduna. Gainera, irabazten duten establezimenduek gutxienez astebete gehiago mantendu beharko dute, epaimahaiaren erabakia ezagutu eta gero. Epaimahaiaren erabakia azaroaren 21etik 25era bitarteko astean jakinaraziko dute eta sari ematea abenduaren 12tik 15era bitarteko astean.

**BAZTAN BIDASOKO EHIZARI BURUZKO XXIV. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK**



Urriaren 28tik azaroaren 27ra

**ARANTZA** | Aterpe t. 948 634 179  
**ARANTZA** | Burlada t. 948 634 027  
**ARIZKUN** | Ordoki t. 948 453 165  
**DONAMARIA** | Donamariako Benta t. 948 450 708  
**ELBETE** | Elbeteko Posada t. 948 581 519  
**IGANTZI** | La Villa t. 948 637 290  
**IRURITA** | Olari t. 948 452 254  
**ORONAZ-MUGAIRE** | Urgain t. 948 592 063  
**URDAZUBI/URDAX** | Montxo t. 948 599 039



Eskatu duzun platerari argazkia atera eta hartu parte Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldietako ARGAZKI LEHIAKETA. Lehiaketaren oinarriak jatetxeetan eskuragarri.



# DONEZTEBE

KULTURA → AZAROAREN 11N, ORTZIRAL ARRATSEKO 8ETAN ZINEMAN

## Pantxoa Carrerek kontzertua eskainiko du feria egunean

Gaiteroek ere giroa alaituko dute ortziral goizean

### Marga ERDOZAIN

Aldizkari honetako gehigarrian ferietako egitaraua ederki azaltzen denez, aipatu behar da ohiko programari Pantxoa Carrerek kaleratutako *Anaitasun* disko berria aurkezpen kontzertua gehitu behar zaiola. Hitzordua gaueko 8etan zinema aretoan. Emanaldi berezi hau ikusteko 8 euroko sarrera ordaindu behar da. Pantxoarekin batera honako musikari famatuak etorriko dira: Joserra Mitxelena (gitarra), Joseba Loinaz (pianoa), Jean Michel Martineau (baxua) eta Agorreta musika eskolako hainbat urtetan aritutako akordeoi-jolea, Iñaki Dieguez.

Hitzordu polita eguna borobiltzeko. Goizean Merkatuko plazan azienda feriatuak, postuetan ibili, Saharaztaren aldeko tonbolan parte hartu, DBHko 4. mailako postuan pintxoren bat jan, gero feriatu, ongi bazkaldu (ferietako menua edo talo goxo-goxo bat), arratsaldean berriro feriatu edo herri kirolerata joan eta gero, 20:00etan zinemara hurbildu, berokira, kontzertu itzela dastatzera. Ondoren, norberak erabakiko du, afaria, poteoa, gau luzea...

### Aste Morerako aldarrikapenerako ekimenak

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna dela eta, Donezteben eta Malerreka osoan hainbat ekimen bateratuak antolatu dira. Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Batzordetik, elkarlanean, bideratu dira hainbat ekintza eta bertze batzuk tokian tokiko udalek burutuko dituzte.

Azaroaren 22an, arratsaldeko 7etan Amaia Nausiak idatzitako *Birjinak ala putak* liburuaren aurkezpena Mankomunitatean egingen da.

Hilaren 23an, *Susannaren iraultza* ikuskizunaren bi emanaldi egingen dira Mendaur Institutuko DBHko ikasleentzat eta arratsaldeko 6:30ean publiko osoarentzat bertze emanaldi bat egingen da.

Hilaren 25ean, eguerdiko 12etan eskolako errotondan bilkura egingen da, bertan herritarrak eta DBHko ikasleek parte hartuko dute. Egun horretan Udazken literarioaren barrenean Elixabet Badiolaren solasaldia burutuko da. Ondoren afa-ri autogestionatua ospatuko da. Ekimen honetaz gain, Mendaur Institutuan, gazteen artean gai honekiko jarraia aktiboa eta baikorra bultzatzeko asmoz, hainbat ekintza ere burutuko dira.

**EZAGUTU GAZTEEN MUNDUA**

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE  
Tel. 948 450 258-948 451 811

**MUEBLES TELLETXEA ALTZARIAK**

[www.mueblestelletxea.com](http://www.mueblestelletxea.com)



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bittori Juanikotena Erreka Tri-ko kirolaria Espainiako txapeldunorde

Marka ederra bota du urriaren 23an Bittori Juanikotena, Mexikon sortu eta arbaso baztandarrak dituen Erreka Tri taldeko kirolariak. Ibizan jokaturako Espainiako Triatloi luzeko txapelketan txapeldunorde izan zen. 4 kilometro igerian, 120 kilometro bizikletan eta 30 kilometro laisterka egiteko 7 ordu eta 35 minutu behar izan zituen eta meritu handiko bigarren postua eskuratu zuen, Kataluniako Dolça Ollé txapeldunaren ondotik eta Gaztela-Mantxako Alba Reguilloren aitzinetik.

### FLASH

#### Tiburtzio Arraztoaren solasaldia

Udazken literarioaren baitan Tiburtzio Arraztoak solasaldia eskainiko du azaroaren 11n. Pilota, bere historia, gure bizitzan izan duen garrantzia, bitxikeriak... mintzagai izanen ditu zikloko hiru garren solasaldi honetan. Azaroaren 18ko etenaldiaren ondoren zikloak bertze hiru hitzordu izanen ditu: azaroaren 25ean (Elixabet Badiola), abenduaren 2an (Izaskun Zubialde) eta abenduaren 9an (Dani Martirena).

#### Errigora ekimena

Errigora ekimena Euskal Herriko txokoetara ailegatzeko ari da baita gurerara ere. Eguberrietako kanpaina honetan parte hartu nahi dutenek azaroaren 10era arte aukera badute. Olio, zainzuriak, piperrak... eta bertze hainbat elikagai bertako ekoizleei erosteko aukera dago. Saski potolo hori erostean euskara Nafarroako txoko guztietara ailegatzeko ahaleginean bultzada txiki bat ere emanen da. Donezteben Oier Zulaikari eskaera egiten ahal zaio (620275572 telefonoa).

#### Tren Txikito erakusketa

Bigarren aldiz erakusketa hau ikusgai egingen da Herriko Ostatuan azaroaren 10etik 20ra. Ordelegiari dagokionez, aipatu behar da goizetan institutuko ikasleendako zabalduko dela eta arratsaldetan 6:30etik 8etara. Asteburuetan 10:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:00etara.



GIZARTEA → MERTXE ETXEKOLONEAREN GONBITEA

## Adineko jendea herriko egoitzaren batean tarteka biltzeko asmoa agertu dute

Elkarrekin solasteko eta denborapasa ibiltzeko leku egokiren bat topatu nahi dute horretarako

### Fermin ETXEKOLONEA

Negu bidean, adineko jendea herriko egoitzaren batean tarteka goxo-goxo biltzeko idea

bota du Mertxe Etxekoloneak, ilunabarretan edo. Beste herrietan egiten den jubiloteka modukoren bat antolatzeari da asmoa, kontu kontari, kartetan edo bertze denborapasa batzuetan emateko orduak. Interesa duenak Mertxeri deitu behar dio (676 967810) eta bera ere ibiliko da jendea biltzen. Non eta noiz bildu, izena ematen dutenen artean erabakiko lukete.



ARTXIIBOKO ARGAZKIA

### Tren Txikitoren mendeurrenaren erakusketa

Ehun urte bete dira Bidasoko Trenak lehen ibilbidea egin zuenetik eta Tren Txikitoren mendeurrenaren erakusketa herriz herri dabil. Azaroaren 24tik 27ra Herriko Etxeko estalpean eginen du geldialdia erakusketa interesgarri horrek.

### Edorta Amurua Kultur Ibilbidean

Edorta Amurua herriarrak eta Amaia Zubiria bere Malerrekako Kultur Ibilbidearen azken emanaldia eskaini zuten Saldiasoko elizan, Zuberoako kantari laukote batekin batera.

### Mieltxo Mindegia laugarren

Mieltxo Mindegia Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finalean parte hartu zuen. Kanporaketan bigarren izan arren, finalean laugarren izan zen, baina lehen mailara hurbiltzen ari da.

### Errigora ekimena akitu da

Azaroaren 8an bukatu zen Errigora ekimenean parte hartzeko aukera. Sasaki potolo hori erosterakoan euskara Nafarroako txoko guztietara ailegatzeko ahaleginean bultzada txiki bat ere eman da.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Edredoi nordikoetan espezialistak**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



# ITUREN

GIZARTEA → LAU URTEREN ONDOTIK, HILABETEKO BIGARREN IGANDEKO HITZORDUARI AGUR

## Artisau eta Lanbide Azoka gehiagorik ez da egingen

Besta ttiki batekin agurtu zuen Malerreka Trukerrekak

### Arkaitz MINDEGIA

Hilabeteko bigarren igandean herriko plazan Artisau eta Lanbide azokaren hitzordua izaten zen, bertan gisa guzietako artisauen postuak izaten ziren, jaki, bitxiak, jantziak... Malerreka trukerrekak antolatuturik. Baina ia ia lau urtez egon ondotik Artisau eta Lanbide azokak irailean izan zuen azkeneko eguna eta besta ttiki batekin bukaera eman zioten.

### Alazne Untxaloren bertso proiektuak

Urriaren 25ean *Momentuari helduz* emandialdia estreinatu zen Iruñeko Bertsoaroen. Alazne Untxalo herritarra eta Oskar Estanga bertsolariek eta Alberto Arteta, Satxa Sorriazu eta Aritz Luzuriaga



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bularreko minbiziaren kontrako lasterketan

Urriaren 23an Bularreko Minbiziaren Aurkako Lasterketan parte hartu zuten herritarrek ere. Goizeko 11etatik aurrera milaka pertsonekin batera Iruñean barna laister egin zuten argazkian ageri diren herritarrek ere. Segi horrela !!!

musikariek prestatu dute Lankuk ekoitzi duen emandialdia. Saio polita izan zen eta eta hurbildu zen jendeak gozatzeko aukera izan zuen.

Bertalde datorren azaroaren 18an Elizondon *Adin adin* proiektu-

dua. Bertso tailerra izanen da Franzisko Juakin Iriarte adinekoen egoitzan arratsaldeko 17:30etan Baztan Udalak antolatua eta bertan Alazne Untxalo eta Andoni Egaña bertsolariak parte hartuko dute.

### Garbitzaile berria

Deialdia atera ondotik, Estibaliz Campo kontratatu du Udalak datozen 4-5 hilabetetan eskola, medikuaren etxea, udaletxeam plaza eta Aurtizko frontoiaren garbiketarako.

### FLASH

#### Errefuxiatuendako arropa bilketa

AHNA elkarteak neguko arropa eta galtzerdiak biltzen ari da Europara etorri diren errefuxiatuei bidaltzeko. Mundu solidario batean hobeki biziko garelakoan, gudatik ihesi dabiltzan pertsona hauei negua pasatzen laguntzeko urriaren bukaera arte, eskolara herritar andanak neguko arropa ekarri du.

#### Ibai Berregi Valentziako Maratoi Erdian

Ibai Berregi kirolaren xoko guzietan dabil, pasa den urriaren 23an Valentzian izan zen maratoi erdian parte hartu zuen eta irailean Iruñeko 10 kilometroko lasterketan ere parte hartu zuen. Segi horrela!!

#### Aurtizko bestak

Aitzineko alean aipatu bezala, azaroaren 10etik 13ra ospatuko dituzte Aurtizko San Martin bestak. Ortzeguneko txupinazoaren ondotik, ortziraleko San Martin Egun handia, larunbateko Haurren Eguna eta, akitzeko, igandeko Herritarren Eguna dituzte.

### AZAROAREN 2AN EGIN ZUTEN AURKEZPEN BERENDUA

Lau solaslagun taldek hasiera eman diote ikasturte berriari Malerrekan

#### Marga ERDOZAIN

Azaroaren 2an Malerrekako solaslagun ekimenaren aurkezpena burutua, erran daiteke talde hauetan parte hartzen dutenek ikasturte berriari hasiera eman diotela. Aipatu behar da Malerrekan 4 solaslagun talde badirela: Donezteben, Zubietan, Donamarian eta Elgorriagan.

Euskara maila hobetu nahi duen-

nak jakin behar dute izena emateko aukera badela. Urtetako esperientziak erakusten du ikasteaz gain hagitz ongi pasatzen dela. Nahiago duenak ekarpena diruz egin, herriko banku bulegoetan irekita dauden kontuetan egin dezake.

Aitzinetik eskerrak eman ditu Paris 365 Fundazioak. Gogoratu, iazko kanpainan 3.805 kilo janari bildu zirela.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskara praktikatu hainbat ateraldi ere egiten dituzte Solaslagunek. Argazkian, 2014an Donamarian egindakoa.



KULTURA → URRIAREN 29KO KANTALDIA

# Txoria sartu da elizan

Jende sailtxo bat bildu zuen kantuak

## Markel LIZASOAIN

Elizek meza emateko baino zerbait gehiagorako balio dutela erakutsi zuten Labaien eniaz eta Saldiasen aurtun. Zaharrak eta gazteak, herriko jendeak eta besteak, 130-150 bat lagun sartu ziren elizara urriko hondarreko larunbatean. Bazuten zerbait gogokoa entzuteko fedea. Eta espero dut kantariak beteko zutela gogo hori: kanturako debozioa behinik behin erakutsi zuten, eta berak txoratzen joan ziren etxera, hotz egonagatik, sumatu baitzuten jendearen berotasuna.

Zuberotarrak aritu ziren lehenik kantuan. Aipatu beharrekoa da laukotean Jean Noel Pinque falta zela, joan deneko bi urtean utzia bai-

tu taldea, eta haren ordeztu Dominique Ürrüti larraintarra dabilela geroztik. Kantaldia akitu eta hona haien solasak: «Momentu goxoak pasatu ditugu denekin». Edorta Amurua «oraindik lainoetan» dabil emanaldiaz oroituta. Eta Amaia Zubiria berriz etortzeko gogoz da. Amaiak, gainera, azken orduan aldatu zuen erreperatorioa. Adineko jendeari belarriak gozatzea etorrita, hango haur saila ikusi eta haientzako modukoak aukeratzeko aritu baitzen errepereriotik, hasi aurretxoan. Hasi ere *Amona mantangorri* kantari hasiz: kantua aurkezteko, jendeari galdetu zion ea nola esaten zuen berak amona mantangorria, eta pentsatzekoa da kattalingorria, mandagorria eta holakoak entzungo zituela. *Brodatzen ari nintzen* ezaguna ere kantatu zuten ama-seeek, eta oroi-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Eliza, itxuraldatua. Kantariak ezkerretik hasita: Jean Pierre Luro, Dominique Ürrüti, Jean Bordaxar eta Robert Larrandabüri.



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Amaia Zubira eta Edorta Amurua, jendearen belarriak goxatzen.

tzapenen kutxa zabaldu zieten entzuleei. Zuberotarren gorazarreak ere egin zituzten, Etxa-

hun Barkoxekoren *Oilaborari gaixua* kantatuz.

Hondarreko kantua, berriz, denek elkarrekin

eman zutena, Etxahun iruritararena zuten, ezagun-ezaguna hori ere: *Goizian argi hastean*.

# erran

Mendialdeko Albisteak  
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak  
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

**e** ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

Download on the App Store

## LEITZA

OSPAKIZUNA → PLAZAN, 10:00ETATIK 14:00ETARA

# 23 salmenta-postu jarriko dituzte azaroaren 13ko azoka berezian

Leitzakoekin batera, Aresoko ekoizleek ere parte hartuko dute aurten

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak eta LeitzEKO Kontsumo taldeak elkarlanean, bertako produktuen II. azoka antolatu dute azaroaren 13rako. Goizeko 10etatik 14:00etara, sasoiko produktuak erosteko aukera izanen da eta baita bederlatzi baserriatik eramanen dituzten animalia eta hegaztiak ikusteko ere. Aurten gainera, herriko baserri eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jendetza bildu zen plazan iaz egin zen lehenengo azokan.

ekoizleek gain, Aresokoek ere parte hartuko dute. Jatekoa ere ez da faltako, herriko talogileek gain, Atekabeltze-koek ere txerria burduntzian egin eta pintxoak

saltzeko asmoa dute eta.

Bertan eta bertakoa modu arduratsuan kontsumitzea da azoka honen helburua eta baserriarren jakinduria eta ezagutza zabaltzea.

HITZALDIA AZAROAREN 10EAN

Azaroaren 10ean, osteguna, arratsaldeko 7etan Atekabeltz Herri-gunean *Nekazaritza ereduak. Elikadura burujabetza* izenburupean hitzaldia eskainiko dute Mixel Berhocoirigoioren Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehen-dakariak eta Juanma Intxaurrendiaren INTIAko gerenteak. Besteak beste, lurraldera modu jasangarriagoan egokitzten den bestelako nekazaritza eredu batetaz eta gurean, nekazaritza iraunkorrak eskaini ditzakeen aukerez hitz egingo dute.

KULTURA

'Gutik zura' dokumentala ikusgai azaroaren 11 eta 12an

JM BARRIOLA

Zinemaldiko estreinaldia eta gero, Leitzako zinea aukeratu du Mari Jose Barriola herritarrek *Gutik zura* dokumentala proiektatzeko. Azaroaren 11n, ostirala, izanen da lehenbiziko emanaldia 22:00etan eta bigarrena, azaroaren 12an, larunbata, 17:00etan. Egurraren lehena, oraina eta etorkizuna landu dute dokumentalean eta bide batez, egurrak Euskal Herriko gizartearekin izan duen harremana gizarteratu nahi izan dute. Tartean, hainbat herritarren lekukotasunak bildu dituzte.



ARGAZKIA: LEITZAKO UDALA

## 50 lagun inguruk parte hartu zuten erreka garbitzeko auzolanean

Azaroaren azken larunbatean erreka garbitzeko auzolana egin zen. 50 lagun inguruk parte hartu zuten eta zabor dezente atera zuten erreka ibilbideetik. Udalak antolatu zuen auzolana eta deialdia zabaldu Life Irekibairen laguntzarekin. Ondoren jasotako zabor guztia plazan jarri zuten ikusgai, herritarrek kontzientziatzeko.



ARGAZKIAK: LEITZAKO UDALA

## Ikusi, ikasi eta dastatzeko aukera Mikologialdian

Urriaren 21etik 23ra ospatu zen 9. Mikologialdia. Igandeko erakusketa osatzeko, larunbat goizean hainbat gaztetxo eta guraso mendira joan ziren Mendibil Mendi taldekoekin perretxikoak biltzera. Hauek bildutako aleak eta beste herritar batzuk emandakoak sailkatzen eman zuten arratsaldea eta denera 147 espezie jarri zituen ikusgai. Erakusketa mikologikoaz gain, Erleta eskolako haurrek egindako eskulanak eta marrazkiak ere jarri zituzten ikusgai Karrapean. Perretxikoen irudiak ere proiektatu zituzten, Mikel Illarregiren lana azalduz eta tartean, Donostiako filmategian zegoen 1963ko mikologialdiako irudi eder batzuk ikusteko aukera ere izan zen, Soroko gaztain erraldoiarekin batera. Boluntarioek prestatutako pintxoak dastatzeko aukera ere izan zen. Eta herriko ostalari eta merkatariek ere bat egin zuten pestarekin, perretxikuekin egindako pintxoak eskaini eta erakusleioak udazken kolorez apainduta.



ZERBITZUAK → ALDAKETAK

## Aldi baterako administraria kontratatuko du Udalak

Egungo idazkariaren ordezkoa ere bilatzen ari dira

**Juana Mari SAIZAR**

Egungo idazkariak eszedentzia hartu due-

nez, aldi baterako administrari bat kontratatuko du Udalak. Momentuz sei hilabeterako lanpostua izango da eta gerora postua sortu edo ez baloratuko dute, horretarako Lansareko dirulaguntza bat erabiliko dute.



### Kinto bazkariak ez dute bukaerarik!

Urriaren 22an egin zuten 1955 eta 1958 artean jaiotakoek (argazkian). Hurrengo hitzordua 1965 eta 1969 artean jaiotakoek dute azaroaren 19an Larrea Elkartean.

Bestalde, idazkaria ordezkatzeko prozesua ere martxan dago. Antolaketa eredu aldaketan dabilta baina oraindik Tokiko Administrazioarekin egoera aztertzen ari dira antolaketa eredu berria sortzeko.



### Ba al zenekien

Bertako produktuen kalitatezko kontsumoa sustatzeko ahalegina egiten ari direla herrian. Azaroaren 3an egin zuten gaiari buruz hitz egiteko bilera eta azaroaren 13ko Leitzako azokan ere parte hartzeak dira herriko zenbait ekoizle.

# ARANO

OSPAKIZUNAK → HERRITARREN ESKUTIK

## San Martinen aitzakian egun osoko festa azaroaren 12an

Sagar jotze eta txalaparta tailerra antolatu dituzte

**Ainhoa ANSA**

San Martin eguna azaroaren 12an ospatuko da Aranon. Goizean, Arano eta Goizuetako lurretan sartu atez marrazten den ibilbide bat egiteko gonbi-

dapena dago luzatua bi herrietan.

Arratsaldeko 6etatik aurrera sagar jotzeari buruz ariko da Arantxa Ansa herritarra eta txalaparta tailer irekia eskainiko du mundu hori ezagutu nahi duen guztiarentzat. Eta iluntzeko 8ak aldera ohiko talo eta gaztain jatea izango da, azkeneko urteetan bezala, hutsik egin gabe.



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

### Herrigintza eskola oso polita atera zen

20 lagun elkartu ziren eta pintzelak eta margoak hartuta bakoitzak bere zintzilikarioa margotu zuen. Orain beste egun bat jarri beharko da falta diren detaileak bukatu eta zintzilik jartzeko. Herritik Surora doan bidea aukeratu dute umek Soinuen ibilbidea egiteko.



ARGAZKIAK: BIXENTE "TXILIBITA"

### Juan Fermin Rekarte izena jarri diote Motokros zirkuitoari

Urriaren 30ean, omenaldi xume baina sentikor bat egin zioten Rekarteri. Duela urtebete hil zen eta, haren omenez jarri dute plaka Motokros zirkuitoan. Denera 100 pertsona baino gehiago bertaratu ziren, familia eta lagunak eta Fly Groupkoek emandako motokros ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten.

# GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZKEN LARUNBATEKO AZIENDA FERIAREKIN BOROBILDUKO DA

## Ekitaldiz gainezka dagoen Azaro kulturala abiatu da

Asteburu guztietan izanen da ekitaldiren bat

### TTIPI-TTAPA

Pasa den asteburuan, jubilatuei eskainitako ekintzekin, kantaldiekin eta solasaldiekin abiatu da Goizuetako Kultur Taldeak, Udalaren laguntzaz antolatutako Azaro Kulturala. Azaroko asteburu guztietan izanen dira ekitaldiak.

Heldu den asteburu honetan, azaroaren 11n, ostiral arratsaldeko 7etan *Ametsen liburua* aurkeztuko dute Ganbaran eta asteburu osoan Iñigo Elizegiren margolan erakusketa zaba-

lik izanen da. Azaroaren 12an, larunbat goizean aranoarrekin topaketa egingen dute maiuru-baratzeetan. 11:00etan plaza dantzak dantzatako lokalean eta 18:00etan jangelan Goizuetako hizkerari buruzko solasaldia Oihana Lujanbiorekin.

Azaroaren 13an, 11:30etik 13:30era Iñigo Elizegiren margolan erakusketa ikusgai izanen da Ganbaran eta 18:00etan, leku berean, *Amalurraren ahotsak* dokumentala ikusgai.

Azaroaren 18an, ostiralean 19:00etan pintxo kalejira egingen dute dantzarekin kalez kale.

Azaroaren 19an, larunbatean 09:00etatik 14:00etara kontserba ikastaroa Umore Ona el-

kartean eta 18:00etan *Gutik ZURA* dokumentalaren emanaldia Ganbaran.

Azaroaren 20an, goizez, erreka garbiketa egingen da auzolanean.

Azaroko azken asteburua ere emankorra izanen da. Azaroaren 25ean, ostiralean 18:30ean emakumeenganaiko indarkeriaren aurkako kontzentrazioa egingen da plazan. 19:00etan Ganbaran, *Esentzia* bere azken liburua aurkeztuko du Ander Olaizola herriko argazkilariak.

Nola ez, azaroko ekitaldiak hilaren 26ko artisau, nekazaritza produktu eta ganadu feriarekin borobilduko dituzte, urteko zita garrantzitsuenetako batean.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Antton Apezetxea eta Iker Salaberria Nafarroako Kirol Jolasetan txapelkun

Nafarroako Kirol Jolasetako pilota txapelketako kadete eta jubenil mailako txapelak Goizuetara ekarri dituzte Antton Apezetxeak eta Iker Salaberriak. Urriaren 22an Labriten jokaturako finaletan nagusitasunez irabazi zuten. Kadete mailako finalean, Antton Apezetxeak 18-6 irabazi zion Oberenako Francisco Javier Oskoz-i. Jubenil mailan, oraindik lehia guttiago izan zen, Iker Salaberriak 18-2 irabazi baitzion Jon Mariezkurrenari.

### FLASH

#### Hasi dira Tifanixkoko obrak

Udalak obra egiteko kontratua urriaren 24an sinatu zuen Zabala eta Goikoetxea enpresarekin eta iadanik Tifanixkoko teilatua berritzeko lanak hasiak dira. Urtea bukatzerako lanekin amaitzea espero da.

#### Arropa postua asteazkenero plazan

Urriaren 26an hasi zen eta asteazken goizero, arropa postua egongo da plazan nahi duen guztiak bertan erosi dezan.

#### Aritz Zubiri binakako txapelketan

Herriko erremontelari profesionalak lehen aldiz parte hartuko du binakako erremonte txapelketa nagusian. Gainera, Urriza izanen du lagun.

#### Umore Ona abesbatzaren 10. urteurrena

Urte osoko ospakizunak abenduaren 18an antolatuko duen kontzertu haundi batekin borobilduko du Umore Ona Abesbatzak. Herrikoarekin batera, Ozenki abesbatza eta Getariko banda ere ariko dira. Bezperan, Hernanin kantatuko du Umore Onak Ozenkirekin batera.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Txamorazaharra baserria kiskali du suak

Urriaren 29an izandako sute batek erabat kixkali eta hondatu du Aitasamegi auzoan dagoen Txamorazaharra baserria. Goizuetako suhiltzaile boluntario bategen emanda, Iruñeko suhiltzaile parke nagusiko suhiltzaileak, zisterna eta autobonba kamioia ekarri zituzten Goizuetara. Herriko suhiltzaile boluntarioak Txamorazaharra ailegatu zirenerako teilatua eta solairuetako zolak eroriak ziren. Inor ez zen bizi baserrian, baina berriki erosia zuten zaharberritzeko intenzioarekin. Hormak ere erortzeko arriskua zeudenez, suhiltzaileek lanean segitu zuten, sua kontrolatu eta baserria inguratzen duten zuhaitzietara ez hedatzeko.



KULTURA → FOLK AMETSETAN ZIKLOA

# Hogeita zazpi urte bete ditu folk musika zabaltzen

Igande honetan Gozategi eta hurrengoan Gani Mirzo siriarraren emanaldiak

## TTIPI-TTAPA

Hogeita zazpi urteren ondoren, Baztan, Castejon, Irurtzun, Lekunberri eta San Adrian go udalek Folk Ametsetan zikloa kudeatzen segitzen dute. Aurten, azaroko lehendabiziko hiru asteburuetan izanen da herri horietako hainbat kultur-espaziotan.

Nafarroako Gobernuak arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko toki-entitateak laguntzen ditu eta horren baitan dago honakoa.

1990ean sortu zen aipatu diru-laguntza deialdia eta ordutik, urtero-urtero, udalak folk musika herritarrei hurbiltzen eta ikuspegi desberdinetatik erakusten saiatzen dira.

Urte aunitz iragan badira ere, eta luzatzen ari den krisialdiak jaialdian eragin nabaria izanik ere, Folk Ametsetan zikloak denboran zehar segitzen du eta Nafarroako musika panoraman sendotu da.

Antolatzaileek kalitateko taldeak ekartzeko apustua egin dute, formatu ertain-txikikoak, herrietako agertokien ezaugarrietarako egokiak. Hogeita zazpi urteotan, ehun talde baino gehiago izan dira jardunik, munduko hainbat herraldetik etorriak eta folk musikaren bai-



ARTXIBOKO ARGAZKIA  
Gani Mirzo kurduak eskainiko du aurtego Zikloko azken emanaldia.

tan hamaika soinu eta aurpegi ekarri dituztenak.

Baztanen lehen kontzertua Poloniako Januzs Prusinowski Kompania taldeak eman zuen azaroren 6an. Azaroren 13an, berriz, Gozategi taldeak kontzertu

akustikoa eskainiko du eta azaroren 20an zikloa amaituko da, Gani Mirzo Siriako kurduaren eskutik.

Kontzertu guztiak Arizkunenean egingen dira, 19:00etan eta sarre-  
ra dohainik izanen da lekuak bete arte.

## EUSKARA

29.400 euroko dirulaguntzak erabilera normalizatzeko

## TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeak 29.400 euro banatu ditu euskara sustatzen eta normalizatzen lanean ari diren sei erakunderen artean. Xorroxin Irratiak 7.500 euro jasoko ditu, Xaloea Telebistaren kopuru berdina. Ttipi-Ttapa hamabostekariak 5.500 euro jasoko du, AEKko Suinki euskaltegiak 7.100 euro, Etxetik Plaza aldizkariak 1.200 euro eta Nafarroako Ikastolen Elkartek 600 euro. Laister, kultur eta kirol jardueretarako laguntzak ere banatuko ditu Balleko Etxeak.

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONOZ - MUGAIRI

**MIRENTXU GOIENETXE**  
T E R A P E U T A  
Autoestima, dolua, ansietatea, bikote arteko arazoak eta famili arteko arazoak.  
ERLATEGI PLAZA, 8 BEHEA  
ELIZONDO | T. 626 021643



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## Maria Maldonadok irabazi du Kasinoko margo lehiaketa

Maria Maldonado irundarrak irabazi zuen urriaren 30ean Elizondoko Kasinoak antolatutako margo lehiaketa eta honenbertez, 1.000 euroko lehen saria eraman zuen. Bigarren saria (400 euro), 2013an garaile izan zen Javier Igoa lesakarrarentzat izan zen. Denera 20 bat margolari bildu ziren, Gartzain, Lekaroz edo Iruritako paisaiak beraien oihaletan margotzeko. Horietatik bakarra izan zen baztandarra, Elisa Muñoz Amorena. Ana Mari Marin, Tomas Sobrino eta Juan Carlos Olaetxea margolariak, Lekarozen eta Gartzainen mediku izan zen Salvador Martin-Cruz arte kritikoa eta Eduardo Zubikoa Kasinoko presidentek osatu zuten epaimahaia.

# BAZTAN

HONDAKINAK → UDALEKO TEKNIKARIAREN DATUAK

## 27 familietatik 25ek konposta egiten dute Anizen

Hondakinen kudeaketa hobetzeko asmoz, Aniz eta Berroetan sortzen den organiko guztia bertan gelditzea da asmoa

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko hondakin teknikaria Anizen izan zen urriaren 26an, orain artio Anizen hondakinen gain lortu denaren eta hemendik

goiti egin nahi dena azaltzeko. Anizen 27 familietatik 25ek konposta egiten dute, %93ak, beraz, emaitza arrasaras onak dira.

Emaitza onak izanagatik, bada zer hobetu, eta Europak dionez, 2020.urterako sortzen dugun zaborraren %50a birziklatu beharko genuke, momentuan %35ean gaude. Hondakinen kudeaketa hobetzeko asmoz, Aniz eta Berroetan sortzen den organiko guztia hemen gelditzea da asmoa, eta Baztan mailan ereduragarri izatea. Hortarako herritarren inplikazioa ezinbertzekoa da, Ba-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Jendetza handia bildu zuen Elizondoko Udazkeneko Feriak

Udazkeneko feriei hasiera borobila eman zieten Elizondon. Eguraldi ederra lagun, itxura dotorea hartu zuen Merkatu plazak. Inguruko azientariek ederrenak bildu zituzten bertan: behiak, zaldiak, asto tikiak, ardiak... eta zenbaitek tratuan aritzeko aukera ez zuten alferrik galdu. Feriak osatzeko, 230 salmenta-postu jarri zituzten karraketan barna eta bai ortziraletan eta baita larunbatean ere jenderik ez zen falta izan. Batzuk ikusmiran, baina gehienak tentazioari ezin eutsitz; turroiak, baratxuriak, lanabesak... bazegoen non aukeratua.

### FLASH

#### Bertsolariak Zahar Etxean

Andoni Egañak eta Alazne Untxalok bertso saioa eskainiko dute azaroaren 18an, ortziraletan 17:30ean Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean.

#### Gradu akaberako lan sarituen aurkezpena

Baztango gazteen gradu akaberako lan saridunen aurkezpenaren baitan *Turismoaren eragina Piriniotako haran baten ekonomian*: Baztan aurkeztuko dute Alaitz Arretxea NUPeko ikasleak eta Fernando Mendiola irakasleak azaroaren 18an, 19:30ean Berroetako Gure Ametsa elkartearen.

# ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · [www.ferreteriaquevedo.com](http://www.ferreteriaquevedo.com)



# Herritargo **KONPROMETITU** baten alde, emakumeenganako indarkeriaren kontra...

...EGUNERO

...TOKI ETA ESPARRU GUZTIETAN

...ERASOTUAK IZAN DIREN EMAKUMEAK BABESTUZ

...ERASOTZATILEEN AURKA

### AZAROAK 21, ASTELEHENA

HEZKIDETZA tailerra Elizondoko Lanbide Eskolan  
Antolatzailea: Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzua

### AZAROAK 24, ORTZEGUNA

Kattalingune, LGTB zerbitzuaren aurkezpena  
Lekua: Anizkumenea  
Ordua: 19:00etan  
Antolatzailea: Kattalingune eta Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzua



IG 2075-2016

Baztango Udala  
Ayuntamiento de Baztan

### AZAROAK 25, ORTZIRALA ELKARRERATATZEA

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA  
EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Lekua: Elizondo, Udal Plaza.  
Ordua: 12:00etan  
Antolatzailea: Baztango  
Udaleko Berdintasun Zerbitzua

### AZAROAK 28, ASTELEHENA

HEZKIDETZA tailerra Elizondoko Lanbide Eskolan  
Antolatzailea: Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzua

### AZAROAK 29, ASTEARTEA

HEZKIDETZA tailerra Elizondoko Lanbide Eskolan  
Antolatzailea: Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzua

### ABENDUAK 4, IGANDEA

ANTZERKIA. LADYDI GARCIA  
Lekua: Irurita, Damaso Zabalza Gizarte Bilgunea  
Ordua: 19:00etan  
Antolatzailea: Baztango Udaleko Berdintasun eta Kultura Zerbitzua



# Azaroak 25 Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna



# BAZTAN

GIZARTEA → ISIDRO GOÑIK EGIN DITU LANAK

## Alkurruntzeko aziendek ura izateko 14.000 euroko inbertsioa

2.000 litroko ur-depositoa, 2 kilometroko hodia eta bi aska berri egin ditu Udalak

### TTIPI-TTAPA

Udako lehorre eta ur-eskasiak ikusirik Balleko Etxeak Alkurruntz-Atxuela alderdian alhatzen dituzten azienda buruendako askak eta ur-eramate azpiegiturak egin ditu, denera 14.000 euroko inbertsioa egin ez.

Alde batetik, Alkuruntzeko askaren ondoan 2.000 litroko ur-depositoa egin du; hor-

tik, Aizkozko eta Atxuelako lepoetarak ura eramateko 2 km. hodi sartu eta aipatu bi lepoetan bi aska berri egin. Aska berrietan urak gainezka ez egiteko eta alferrik ez galtzeko buiak paratu ditu. Bertze aldetik, Pausutxarreko eta Gurutzetako lepoetako askak moldatu ditu. Lan hauek Isidro Goñi S.L.k egin ditu eta asken kokapena eta egin beharreko lanak zehazteko hango nekazariekin bilerak egin dira. Alkuruntz-Atxuela alderdian Azpilkueta, Amaiur, Orabidea eta Bagordiko nekazarien ardiak, behorrrak eta behiak alhatzen dira.



### Ba al zenekien

Santa Zezilia egunaren inguruan kalejirak eginen dituztela Elizondoko Rebrero musika bandak hilaren 19an eta Musika Eskolak 22an.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aizkozko eta Atxuelako lepoetan bi aska berri egin dituzte.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### 2.000 kilo sagar jo dituzte Kirikoketa Egunean

Kirikoketa bestaren hamazazpigarren edizioa ospatu zen urriaren 22an Arizkun, Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatua. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoa bihurtuko den sagarra jo zen, 2.000 kilo inguru. Jo ala Jo Taldekoek zaintzen dituzten sagarrondoetatik bildu dute sagarra, baita Gipuzkoatik ekarria ere, aurtengoa ez baita sagar urtea izan. Kirikoketa erritmora jo zituzten Jo ala Jo taldekoek eta jendetza handia bildu zen Arizkunera. Karriketan eskulangi-leen postuak eta janari-edariak ere paratuak zituzten eta erraldoiak ere ibili ziren. Dena musika eta dantzekin ongi hornitua (Kutxa dantza ere dantzatu zuten), eta nola ez, herri bazkari dotorea goiz parteko ospakizunak akitzeko.

# HIPERSIMPLY

## JOSTAILUAK

NAFAR MENDI MERKATALGUNA  
ARRAIOZ - BAZTAN  
948.452.656 - 9H00 - 21H00





KULTURA → HILAREN 20AN DONOSTIAN AURKEZTUKO DU

## ‘Anaitasunean’, Pantxoaren lehen diska bakarlari moduan

Azaroaren  
20an egingen du  
aurkezpena  
Donostian

### Franck DOLOSOR

Anaitasun gehiagoren beharra dugulokan, elkartasunari begi kliska egiten dion izenburua hautatu du Pantxo Carrere (Azkaine-1948) abeslariak bakarlari gisa aurkeztu duen lehen diskoarentzat. Iñaki Dieguez eskusoinulariaren laguntzarekin Xalbador, Manex Erdozaintzi, Daniel Landart eta Manex Pagolaren bertso eta olerkiak musikatu ditu lapurtarrak. Elkar disketxeak atera duen obra honetan, oroz gainetik, anaitasuna aldarrikatzen du azken 40 urteetan Euskal Herri osoan ezaguna den kantariak. Pantxoaren hitzetan «mundu nahasian bizi

gira gerlekin eskualde guzietan». Gerra eta miseriatik ihes egiten duten milioka etorkinen irudiek hunkitzen dute lapurtarra. «Normala den jendea hunkitua izan behar da beren bizia arriskuan ematen baitute. Zinez gaizki izan behar dute eta hemen kanpoko beldurra dagoenez ez ditugu behar bezala errezebitzen» deitoratzen du ahots berezi eta goxoa daukan abeslariak.

### SINESTEN DUT

Irautea irabaztea dela zioen duela gutxi kurdutek eta euskaldunek ere iraunez irabaziko dugula ziur dago Pantxo. Itxaropena kantatu nahi baitu Manex Erdozaintziren *Sinesten dut* olerkia musikatu du. Manex Pagolarekin harreman estua dauka aspalditik eta gaur egun ere maiz elkartzen da Landibarre-



ÚTIZAKO ARGAZKIA

Pantxo Carrere, pianoa lagun.

ko kantu egile oparoarekin. «Manexen kantuak nik idatziak balira bezala sentitzen ditut» atera zaio bihotzetik lapurtarrari. Monzonekin gertatzen den bezala, Pagolari ere ainitz zor zaio la uste du kantautoreak.

Landarten bi olerkiek «aho handiak» eta amodio platoniko bat aipatzen dituzte Xalbadoren bertsoak ama gorai patzen duelarik. *Haur batek bere amari bertsoaren bidez emakume lehialena ama dela gogoratu da Pantxo. Ama eta emazte guztiak ohoratu nahi izan ditu egunero bortizkeria gehiegi ikusten baita. Sorkuntzen artean *Eman esku elgarri* izenpetu du Gure Esku da-*

go ekitaldiaren karietara idatzi zuen testua hain zuzen.

### BARKALARIA BAINA EZ BAKARRIK

Berrogei urtez, Peio Ospital itsasuarrekin aritu izan da Pantxo plazaz plaza Euskal Herriko herri gehienetan. Dena den, duela lau urte ibilbideari amaiera ematea erabaki zuten harreman ona mantendu duten bi lagunek. Pantxoak daki arraroa egingo zaiola bikoteki-dearekin gehiago ez agertzea baina argi dauka denbora berean ez dela bakarrik izanen ondoan laguntzaile asko hurbildu zaizkiolako. Ugo eta Naia seme albarekin atsegin handiz grabatu du *Zoin maite*

*zaitudan*. Bestalde, Ioriatu da ere Iñaki Dieguezekin «sentsibiltate ikaragarria baitu eta kausitu baitu nik nahi nuena».

### KANTUZ BIZI NAIZ

Pantxo Carrere ez da geldirik egoten den horietakoa. Egunero zortzi kilometro egiten ditu oinez eta ostiraleko Larrun mendira igotzen da. Artistak ibilaldi horietan aurkitzen du inspirazioan. Bai eta Arbonan daukan etxean ere.

Diskoa aurkezteko kantaldiak eskainiko ditu orain Pantxoak garrantzi berezia emanez azaroaren 20an (19:00) Donostiako Antzoki Zaharrean emango duen kontzertuari.

**GRUPO TANATORIO TALDEA**  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA  
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**T. 902 210 800 • www.venta-peio.com**

**VENTA PEIO**

Bera (Administrazioa) 31780 BERA | Dantxarinea 31712 URDAX | Ibardin 31780 BERA | Luzaide 31660 LUZAIDE



## SARA

## GIZARTEA

GIZARTEA → AZAROAREN 13AN

# Selauru hustea antolatu du igandean eskola publikoak

Sartzea urririk izanen da polikiroldegian eta ostatua ere jarriko dute

**Joana GERENDIAIN**

Heldu den azaroaren 13an, igandearrekin, Sarako eskola publikoak selauru huste bat antolatzen du polikiroldegian. Egun osoan iraganen da, goizeko 9etatik landa. Edonori idekia da, tokiak erreserbatzeko eskola publikoarekin harremanetan sartu behar da. Sartzea urririk izanen da, bertan ostatu bat eta talo, ogitar-teko salmenta bat izanen da.

## Eskuen lana

Eskuen lana elkarteak atelierrak proposatzen ditu astelehen arratsalde guziz 2etatik 6ak arte Lur Berri gelan. Aktibitate ezberdinak proposatzen dituzte, hala nola trikotatzea, kakorratza, josketa, karto-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskuen Lana elkarteak egindako lanekin erakusketak egin ohi dituzte.

nezko gauzak egitea, tinta portzelanaren gainean, patchwork-a, eta galdetuz mosaika eta argi-estalkiak egiteko aukera ere bada. Izena emateko Brigitte Sasi-as-ekin harremanetan sartu behar da 0620 33 17 54 edo 05 59 47 50 53 zenbakira deituz. 65

euroko urtesaria galdegina da.

## Kirol emaitzak

Urriaren 22 eta 23ko asteburuan eskubaloiari, Urtxintxak taldeko 13 urtez azpikoek 30-22 galdu dute Nafarroaren kontra, 15 urtez azpikoek 25-19 irabazi du-

te Bokaleren kontra eta seniorrek 23-16 galdu dute Madiranen kontra.

Errubian, Sarako Izarrako basurdeek 20-16 irabazi dute Mendikoteraren kontra eta urriaren 30ean 13-10 Hermerren kontra. Ea azaroan ere sasoi onari eusten dioten!

## LANA

Eskualdeko 860 lagun zeuden langabezian urri hondarrean, irailen baino 34 guttiago

## TTIPI-TTAPA

860 lagunek emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan urri hondarrean, irailen baino 34 guttiagok (-%3,80). Nafarroan, guztira, 586 langabetu guttiago daude (%1,49 guttiago).

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 352 lagun daude langabezian, irailen baino 15 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere 13 guttiago daude langabezian, 435. 25 urtez beheko gizasemeen artean irailen baino 4 guttiago daude langabezian, 38 lagun denera. Adin tarte horretako emakume gazteen artean ere irailen baino 2 langabetu guttiago daude, 35 denera.

Arloka, zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina irailen baino 16 guttiago ditu, 626tik 610era pasatuz. Industria arloan ere 14 langabetu guttiago daude, 116 denera. Eraikuntzan 3 langabetu guttiago daude, 65. Nekazaritzan, al-diz, langabetu bat gehiago dago, 25 denera, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean, 44 lagun daude langabezian, irailen baino 2 guttiago.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinearik  
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com

**Lois**

Arropa Denda Ofiziala  
 KALE NAGUSIA, 13 T. 948 221595  
 (Herri Zaharra) IRUÑA  
 Facebook: Fulber Shop

Profesion  
 Vindikarion  
**ERRANDONEA, S.L.**  
 FERRETAI ETA BARRAZKIAI

**BILTEGIA 948 630 102**  
**ANDER 687 736 929**  
 Bidasoa, 76 - atea 21-22  
 31780 BERA

**Mármoles**  
**SOULE**  
 HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
 ARIZKUN



## EZKONTZAK

**Xalbat Bergara** eta **Amandine Arri-  
vera**, Sarakoak, irailaren 15ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Luken Goyheneix Béan**, Sarakoa, irailaren 30ean.

**Maiane Irazoki Mendizabal**, Lesakakoa, urriaren 12an.

**Xabat Gajate Aleman**, Lesakakoa, urriaren 20an.

**Galder Bereau Txoperena**, Igantzikoa, urriaren 14an.

**Lier Hurtado Gonzalez**, Igantzikoa, urriaren 19an.

**Hegoi Arnedo Mitxelena**, Doneztebekoa, urriaren 12an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Maria Gamio Etxeberria**, Arizkungoa, urriaren 19an, 93 urte.

**Maria Luisa Migelena Ariztegi**, Urrozkoa, urriaren 21ean, 76 urte.

**Jose Luis Escudero Linazasoro**, Berakoa, urriaren 22an, 76 urte.

**Juan Bautista Tolletxea Urtxegi**, Berakoa, urriaren 23an, 85 urte.

**Basilio Etxebeste Legasa**, Lesakakoa, urriaren 24an, 85 urte.

**Jose Miguel Arraras Perurena**, Leitzakoa, urriaren 25ean, 53 urte.

**Jose Mari Zelaieta Eltzaurdia**, Igantzikoa, urriaren 28an, 46 urte.

**Piedad Rivas Gonzalez**, Elizondokoa, urriaren 28an, 85 urte.

**Domingo Marifelarena Zubitur**, Leitzakoa, urriaren 31n, 85 urte.



# Bortzirietako

## Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

### Jakinarazpena

2016ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

#### Ordaintzeko era:

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:**

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

#### Ordaintzeko epea:

- 2016ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2016ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Etxalar, 2016ko urriaren 1a

Lehendakaria,

**Miguel Maria Irigoien Sanzberro**

MENDIA → AZAROAREN 5EAN IZPEGIN

# Baztan-Bidasoa bidesarearen aurkezpena egin dute

200 kilometro inguru errekuperatu eta balizatu ditu Nafarroako Federazioak

## TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa eskualdea hainbat GRk (Ibilbide Luzeak) zeharkatzen dute: GR11 (Pirineoko Ibilbidea, Hegoetik), GR12 (Euskal Herriko Bidea) eta GR10 (Pirineoko Ibilbidea, Iparretik). Sare honetara gehitu dira orain E.Lotura GR 11 – GR 12 edo Bidasoko Trekina (“Y”

formako ibilbidea, Bera/Lesakan eta Lakaingo Lepoan GR11 eta GR12, Uztakortan, lotzen dituen) eta GRT5 Kulunka/Kulunkaren Bidea (GR11 Elizondon eta Argibelen, eta GR10 Buztanzelain, lotzen dituen). Azaroaren 5ean, Izpegin egingen dute Baztan-Bidasoa bidesare berri honen inaugurazioa.

## IBILBIDE TARTEAK

• **E. Lotura GR 11 – GR 12 edo Bidasoko Trekina:** GR 11 - GR 12 lotura, “Y” forma duena, eta Nafarroan GR 11 eta GR 12 lotzen ditue-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bidarrain edo Baigorri GR10 ibilbidearekin lotzeko aukera ematen du.

na. Guztira 137,80 kilometro. “Y” barreneko ibilbidea 3 tartetan banatzen da:

- Mendebaldea: Lesaka (GR 11) - Igantzi - San Juan Xar - Arantza - Azki Lepoa - Bustitz lepoa. Guztira, 16 km.
- Ekialdea: Lakaingo Lepoa (GR 11) - Etxalar - Azkua - Irubagoeta - Sunbilla - Añezti - Bustitz lepoa. Guztira 27,54 km.
- Hegoaldea: Bustitz lepoa - Mitxeltoneko Borda - Aurtitz - Agotaburu - Beintza Labaien - Orraita Lepoa - Artzillar - Uztakorta (GR 12).

Guztira 21,79 km. Kanpoaldeko ibilbidea, hiru tartetan banatzen da:

- GR 12 Uztakorta - Bagaundiko Lepoa - Belate: 11,31 km.
- GR 12 Belate - Okolin - Artesaiga - Buztanborro (GR 11ko lotura) - Argibel - Bailegi Lepoa - Elizondo: 30,56 km.
- GR 11 Elizondo - Bagordi - Eskisaroi Lepoa - Ursumiats - Lakaingo Lepoa - Xorilepo - Bera (30,75 km), edo Xorilepo - Lesaka (31,51 km).

Guztira “Y” ibilbidea: 65,33 km Guztira kan-

po aldeko ibilbidea: 72,50 km.

• **GRT 5 Kulunka/Kulunkaren Bidea:** “T” formako Pirineoko GR arteko lotura, Iparraldeko GR10 Izpegin eta Hegoaldeko GR11 Kintonan lotzen dituen. Ibilbide zoragarri honek 28,60 km ditu, Baztan eta Nafarroa Behereko Aldude bailaretako mugako bizkarrean barna. Ibilgailuen abiapuntua Izpegin eta Elizondon daude. 4 tarte ditu: Izpegi-Buztanzelai, Izpegi-Berderiz, Berderiz-Argibel eta Berderiz-Elizondo.

FUTBOLA → BELAR ARTIFIZIALA JARRI ETA GERO

# Matzada futbol zelai berritua estreinatu dute Beran

Azaroaren 26an egingen dute inaugurazio ofiziala

## TTIPI-TTAPA

Belar artifiziala paratu ondotik, urriko azken

asteburuan berriz ere partida ofizialak bueltatu dira Berako Matzada futbol zelaira. Gure Txokoako Erregionaleko eta kadeteen taldeak larunbatean jokatu zuten (berdinketa eta berataren garaipea) eta infantil mailan, Gure Txo-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Lehenbiziko derbia ere ezagutu du Matzada berrituak, infantil mailakoa.

koa eta Beti Gazteren arteko derbia berdindu zuten.

Abuztuan sinatu zuten 12 urterako hitzarmena Gure Txokoak eta Berako Udalak. Gure Txokoa elkarte ardu-

ratuko da Matzada zelaiaren kudeaketaz datozen 12 urteetan eta trukean zelai erabiltzeko baimena izanen du. Hobekuntza lanen ardura ere elkartearen esku dago, Udalaren la-

guntzarekin.

Hobekuntza lan hauen kostua 500.000 eurokoa izanen da eta horietatik zatirik handiena, 380.000 euro zelai artifiziala jartzera bideratuko dira.



Festa giroan ateratako kontua, erronka bihurtu eta geroztik trontzari lotuta bizi da Itxaso. Hasiera «gogorra» izan zela dio, baina urtez urte kokxa bat igotzen joan eta borobila izan

da 2016a. Euskal Herriko eta Nafarroako txapelketak irabazi ditu Leire Astiasararekin bikote eginda, errekorrak gaintuz gainera. Trontzak kirolarekin gozatzeko aukera eman

dio eta baita «familia tiki bat» ere «giro berezia dugu Baztan Bidasoa Gure Kiroletako Klubean». Orain arteko bidez eta etorkizunaz hitz egin du TTPI-TTAPArekin.

Itxaso ONSALO MARTINIKORENA | Aresoko trontzalaria

# «Ezinezkoa dela esan aurretik saiatu egin behar dela erakutsi dit trontzak»

**Eneritz IRAOLA | ARESO**

Duela lau urtera arte, herri kirola «urrutiko kontua zen» Itxasorentzat «eskolan zeredo zer probatu genuen baina hortik haratago deus ez. Urtean behin, herriko festetan ikusten nuen ekitaldia zen... Nork esango zidan ikusle izatetik plazan aritzera pasako ginela!».

**ERRONKA PERTSONALA**

Leire Astiasararekin abiatu zuen ibilbidea «Patxi Larretxeak eskaini zigun probatzeko aukera eta Mugairen ikusi genuen giroak harrapatu egin gintuen. Talde guztiak eman zigun laguntza baina batez ere Patxi. Berari esker gaude gauden tokian».

Hasiera ez zen erraza izan «inuxentea sentitzen nintzen trontza hartzen nuen bakoitzean. Ez nekien ezer. Posturak, fisikoa landu gabe, indarra ere askoz gutxiago... lau korte egin eta munda zen». Baina ez zuten etsi «hasieran asko sufritzen nuen baina saiatu behar genuela erabaki genuen. Pentsa, lehen bizikoz San Ferminetako txapelketan aritu ginenean anbulantzian eraman behar izan ninduten». Une hartan ez zen jabetu egindakoaz, «us tekabean bigarren postua lortu genuen eta horrek eman zigun segitzeko indarra». Baita plaze-

**PROBATZECO AUKERA**

«Ez dago herri kirola lantzeko eskolarik eta dauden Klub bakanetan ez dute 50 ume hartzeko gaitasunik. Haurrei probatzeko aukera eman beharko litzaieke. Probatu ez badute, nola dakite ez dutela gustuko?»

**BERDINTASUNA**

«Zer landua badago baina festetako egitarauak osatzeko Udalek talde mistoak eskatzen dituztenez aukera gehiago ditugu neska gutxi gaudelako».

tako giroak ere «erakustaldietan parte hartzen hasi ginen, kirolari profesionalak ezagutzeko aukera izan genuen eta ikusleen goxotasun jasotzekoa. Emozionatu ta ibiltzen ginen eta gaur egun ere jendearengandik jasotzen dudan maitasun horrek betetzen nau gehien».

**URTE BOROBILA**

Urtez urte kokxa bat igotzen joan dira eta aurten oso «iaz Leire ama izan zuten eta bere ordez, Xantarekin aritu nintzen. Ongei etorri zitzaidan gorputza zailtzeko baina go-



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Itxaso Onsalo, aurten lortu dituen bi txapel nagusien ondoan.

gotsu nengoen berriz ere Leirerekin ateratzeko. Gogoz bueltatu zen bere ere eta bihotzez eskertzen diot egiten duen ahalegina, meritu ikaragarria du».

Gogotik bota dute izerdia eta Euskal Herriko eta Nafarroako txapelketak irabazi dituzte errekor berriak eginez, «momentu ezin hobean etorri dira sari hauek. Bati eman izan dit errespetua txapelketak eta horrek ez zidan behar be-

zala gozatzeko uzten. Baina aurten bai, gozatu dut».

**SEGURTASUNA**

Bere buruarekiko segurtasuna eman dio trontzan aritzeak «bizitzako beste arloetan ere ezinezkoa dela esan aurretik saiatu egin behar dela erakutsi dit. Besteek egin badezakete nik zer gaitik ez?». Helburua bati eman izan dit errespetua hobetzen joatea dela dio «behetik gora-

ko bidea egitea. Niri ezin didazu jarri 100 kiloko harriarekin, gorputzakez didalako ematen baina bai gutxiagorekin».

Etorkizunera begira hobetzen segitzea du helburu «osasuna, sa-soia... badut eta honetan segi nahi dut. Aurten adibidez txapelketa mistoan atera naiz Mikel Eugirekin eta bigarren geratu gara, arantzatxo hori geratu zait. Iaz irabazi nuen txapel bakarra berarekin lortu nuelako».

ATLETISMOA → URRIAREN 30EAN, BIDASOKO TRENBIDEAREN MENDEURRENA GOGORATUZ

# Tren Txikitorren I. Lasterketa arrakastaz burutu dute Lesakan

78 korrikalari aritu ziren

## TTIPI-TTAPA

Bidasoko Trenbideak ehun urte bete dituela eta ospakizunei segida emateko, Udalkoldegiak lehen aldiz Lesakako Tren Txikito Lasterketa antolatu zuen urriaren 30erako. 78 korrikalarik parte hartu zuten eta hiru ibilbide izan zituzten aukeran: 6 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun), 12 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Lesaka) eta 17 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Harkaitzako iturria-



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

17 (goitian) eta 12 kilometroko (behean) lasterketen emakumeen eta gizonen podiumak.

Lesaka). Luzeenean, as-  
tebete lehenago Lizunia-

gako Igoera irabazi zu-  
en Lurdes Oizartzabal eta

Errenteriako Angel Ma-  
cias nagusitu ziren.

## 6 KM

- 1 Raquel Perez
- 2 Eurne Perez
- 3 Nora Sandovan

## 6 KM

- 1 Txomin Elgorriaga
- 2 Gaizka Sancho
- 3 Javier Alzuguren

## 12 KM

- 1 Maialen Lopez
- 2 Montse Fernandez
- 3 Gema Albisu

## 12 KM

- 1 Joseba Elizagoien
- 2 Juan Luis Irazoki
- 3 Patxi Pikabea

## 17 KM

- 1 Lurdes Oizartzabal
- 2 Nerea Mendizabal
- 3 Mari Carmen Olaso

## 17 KM

- 1 Angel Macias
- 2 Mikel Hoyos
- 3 Julio Cesar Asto

ERREMORTE → BINAKAKO TXAPELKETA

# Aritz Zubiri goizuetarrak lehen aldiz jokatu du txapelketa nagusian

Bortz bikote hasi dira lehen eta abenduaren 17an jokatu da finala

## TTIPI-TTAPA

Bortz bikote ari dira binakako 46. erremonte txapelketa ofizialean, joan den urtean Koteto Ezkurra doneztebarrak eta Endika Urrutia saldiastarrak jantzi zuten txapelaren bila: Urriza eta binakako nagusian lehen aldiz ariko den Aritz Zubiri goizuetarra, Ezkurra II eta Ion, Koteto Ezkurra eta Etxe-

berria III, Segurola eta Barrenetxea IV eta Uterga eta Endika.

Bikote guztiek badute binaka txapeldun izandako erremontelariaren bat: Ezkurra (1994, 1999, 2006, 2014 eta 2015), Ion (2011, 2013 eta 2014), Etxeberria III (2010) Barrenetxea IV (2012), Urriza (2007, 2008, 2010 eta 2012), Uterga (2013) eta Endika (2015). Zubiri goizuetarrentzat ez ezik, Segurolarentzat ere lehen binakako txapelketa nagusia izanen da.

Azaroan jokatu den ligaxka denek denon kontra jokatu du-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Binakako txapelketan hasi diren erremontelariak aurkezpenean. Urriza falta da.

te eta lau lehenbizikoek lortuko dute finalerdietarako txartela. Finalerdia abenduaren 3

eta 10ean jokatu dituzte, multzoko lehenbizikoak laugarrenaren kontra eta bigarrenak

hirugarrenaren kontra eta irabazleek finala jokatu dute abenduaren 17an.



ATLETISMOA → URRIAREN 22AN EGIN ZEN BERAKO PROBAREN 36. EDIZIOA

# Alberto Barberena baztandarra nagusitu da Lizuniagako Igoeran

103 korrikalari atera ziren lasterketa nagusian

## TTIPI-TTAPA

Lizuniagako igoeraren 36. edizioa burutu zen urriaren 22an Beran. Haurren krosean, 70 neska-mutikok parte hartu zuten eta lasterketa nagusian 103 korrikalari atera ziren. Lehen aldiz Alberto Barberena baztandarra nagusitu zen (18:06), Fernando Etxegarai beratarren (18:15) eta 2013ko edizioa irabazi zuen Victor Madejón irundarraren aitzinetik (18:27).

Emakumeen artean,



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Madejón, Barberena eta Etxegarai, hiru lehenbizikoak Lizuniagako kaxkoan.

azken bi urteetan bezala, Lurdes Oiartzabal ezotarra izan zen irabazle, aisa nagusitu baitzen (21:51). Bigarrena, Monica Telletxea irundarra izan zen (22:04) eta hi-

rugarrena Saioa Garbisu beratarra (24:49). Aipagarria da Batis-ta Telletxea beratarren aurten ere ez zuela huts egin eta aurtengokoa erekin lasterketaren 36

edizioetan parte hartu duela. Azpimarratzekoa ere Xole Garmendia eta Aitziber Iturria ama-alaben lana, emakumeetan hamar lehenbizikoe-tan sartu baitziren.

HERRI KIROLA → NAFARROAKO ARPANA TXAPELKETA MISTOA

# Nerea Sorondo beratarrak eta Barberenak irabazi dute Beran

Itxaso Onsalo aresoarra eta Eugi bigarren

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako arpana txapelketa mistoa laugarren aldiz jokatu da. Aldi honetan, urriaren 23an erabaki zen Beran. Hiru bikote izan ziren lehian eta etzanda jarritako 45 ontzako enborrean 10 ebaketa egin behar zituzten. Hasiara batean, Nerea Sorondo beratarra Xabier Urrutia arraiotzarrarekin ari-

tzekoa zen, baina honen ordean, Iraizozko Josetxo Barberena aritu zen. Sorondo eta Barberenak lortu zuten txapela, lana 4 minutu, 9 segundo eta 34 zentesimatan bukatu ondotik. Iaz Igantzin txapel-dun suertatu ziren Itxaso Onsalo aresoarra eta Mikel Eugi ultzamarra bigarren izan ziren bortz segundora (4:14.47) eta hirugarren Arostegiko Imanol Kañameres eta Txantreako June Etxeberria gelditu ziren (5:04.69).



UTZITAKO ARGAZKIA

Kañameres eta Etxeberria, Barberena eta Sorondo txapel-dunak eta Onsalo eta Eugi azpitxapel-dunak podiumean.

## AIZKORA

Otañok irabazi du Euskadiko bigarren mailako txapelketa

Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketako finala jokatu zuten urriaren 29an Azkoitian. Sei aizkolarietatik lau nafarrak ziren, baina bi gipuzkoarrek lortu zituzten lehen mailan aritzeko eskubidea ematen duten bitartekak: Eneko Otañok txapeldun izan zen, eta bigarren mailako aizkolaririk gazteena, Julen Alberdi, bigarren.

Kanporaketan nagusi izan zen Otaño eta hortaz ez zen ezustea izan txapelajantztea ere. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko mozteko 20 minutu eta 47 segundo behar izan zituen. Julen Alberdiren bigarren postua sorpresa handiago izan zen. 21 minutu eta 17 segundo behar izan zituen lana burutzeko. Ander Erasun aurtiztarra hirugarren izan zen (22:29), Mieltxo Mindegia zubiatarra laugarren (22:52), Kañameres III. bosgarren (23:53) eta Oihan Larretxea seigarren (24:09).


## ZALDUAK DESAFIOA

Finalaren ondotik, Xabier Zalduak bertan aritu ziren denei desafioa botatzeko, 20 kanaerdikotara jokatzeko. Martxoan izanen litzateke apustua eta enborrak Zalduak berak eramanen litzateke. Zumarragakoa azaroaren 11n Azkoitiko Ixidro erretegiaren egonen da 20:00-etatik aitzinera solaste-ko eta, ahal bada, apustua sinatzeko prest.

## azaroak 10 - 24

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Solasaldiak



BERA | 2016.11.17

**Euskaraz (ongi) ez dakiten gurasoentzat hitzaldia Paula Kasaresekin**

Euskaraz ez dakiten edo ongi moldatzen ez diren gurasoentzako hitzaldia eskainiko du Paula Kasaresek Beralandetan, 17:00etan. Gaztelaniaz izanen da eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuko du.

## Dokumentalak



GOIZUETA-LEITZA | 2016.11

**'Gutik Zura' dokumentala eskainiko dute Leitza eta Goizuetan**

Eskualdeko hainbat lagunen testigantzak biltzen dituen dokumentala azaroaren 11n eta 12an eskainiko dute Leitza eta Goizuetako azaroaren 19an Goizuetako Ganbaran.

## Kontzertuak



DONEZTEBE | 2016.11.18

**Pantxo Carreren kontzertua Doneztebeko ferietan**

Feria eguna borobiltzeko, Pantxo Carreren kontzertua eskainiko du Doneztebeko Zineman, 20:00etan. *Anaitasunean* bere bakarkako lehenbiziko laneko kantak aditzeko aukera izanen da.

**Erakusketak**

DONEZTEBE

**Tren Txikitorren mendeurreneko erakusketa**

Azaroaren 10etik 20ra.

GOIZUETA

**Margolan erakusketa**

Azaroaren 11tik 13ra Iñigo Elizegiren lanak Ganbaran.

**Hitzaldiak**

DONEZTEBE

**Udazken literarioak Herriko Ostatuan**

Azaroaren 11n Tiburtzio Arraztoarekin, 20:00etan.

GOIZUETA

**'Ametsen liburua' aurkezpena**

Azaroaren 11n 19:00etan Ganbaran.

**'Goizuetako hizkera'**

Azaroaren 12n Oihana Lujanbio 18:00etan jangelan.

**'Esentzia' liburuaz**

Azaroaren 25ean Ander Olai-zola 19:00etan Ganbaran.

BERA

**'Maitasun erromantikoa ezbaian'**

Azaroaren 12an Irantzu Varela 18:00etan Beralandetan.

**'Heriotz duina eta eutanasia'**

Azaroaren 14an Manuel Ezio-laza 18:30ean Beralandetan.

**Paula Kasaresekin hitzaldia**

Azaroaren 17an *Ez dakigu (ongi) euskaraz, nola lagunduko diegu?* 17:00etan Beralandetan.

**Greziako errefuxiatuen eta boluntarioen egoera hizpide**

Azaroaren 18an 19:30ean Beralandetan.

BERROETA

**Alaitz Arretxearen gradu akaberako lanaren aurkezpena**

Azaroaren 18an *Turismoaren eragina Pirinioetako haran baten ekonomian: Baztan*. 19:30ean Gure Ametsa Elkartearen.

IRURITA

**'Kirola, ehiza eta gastronomia'**

Azaroaren 25ean 19:30ean Olari Jatetxean.

**Ikastaroak**

LESAKA

**'Zaindu zaitetz! Estresa nola gobernatu'**

Azaroaren 8an, 15ean eta 22an Udalaren Erabilera Ani-

tzeko lokalean, 11:00-12:30.

LEITZA

**'Nekazaritza ereduak. Elikadura burujabetza'**

Azaroaren 10ean Atekabeltzen, 19:00etan.

SUNBILLA

**Lehen sorospen ikastaroa**

Azaroaren 11n udaletxean, 17:00etatik 19:00etara.

GOIZUETA

**Kontserba ikastaroa**

Azaroaren 19an Umore Ona Elkartearen, 09:00-14:00.

## PROPOSAMENA

GOIZUETA

**Ekitaldiz hornitutako azaro kulturala**

Liburu aurkezpenak, hitzaldiak, margolan erakusketa, dantzak, dokumentalak ikusgai... Aurten ere hilabete beteaz izaten ari dira Goizuetan, herriko Kultur Taldeak egindako lanari esker. Gainera, aipatzekoa da, egitarauan herritarrak direla protagonistak: herritarren margolan, liburu eta solasaldiekin gozatzeko aukera izanen baitute. Eta guztia borobiltzeko, hilabeteko azken larunbatean, azaroaren 26an nekazaritza produktu, artisau eta ganadu feria egingen dute.





## Bertsoak

BAIONA

### Xilaba txapelketako finala

**Azaroaren 12an** Lauga gelan,  
17:00etan.

ELIZONDO

### Bertso saioa zahar etxean

**Azaroaren 18an** Andoni  
Egaña eta Alazne  
Untxalorenkin, 17:30ean.

LESAKA

### Bertso gaztain jatea

**Azaroaren 19an** Alaia Martin  
eta Agin Laburrekin, Basurde  
Elkartean, 14:00etan.

## Ipuin-kontalariak

BERA

### Munduko ipuinak

**Azaroaren 25ean** 4-8 urteko-  
entzat 18:00etan Liburutegian.

## Ikuskizunak

BERA

### Haurrentzako ikuskizuna

**Azaroaren 19an** *Gaueko  
enziklopedia koxkorra*,  
17:00etan Kultur Etxean.

## Dokumentalak

GOIZUETA

### 'Amalurraren ahotsak'

**Azaroaren 13an** Ganbaran,  
18:00etan.

### 'Gutik Zura'

**Azaroaren 19an** Ganbaran,  
18:00etan.

LEITZA

### 'Gutik Zura'

**Azaroaren 11n** 20:00etan eta  
**12an** 17:00etan Zineman.

## Antzerkiak

BERA

### XVIII. Kafe Antzerki Zikloa

**Azaroaren 11n** *Putinen guar-  
dasola* 22:00etan Ikuilun.

**Azaroaren 19n** *Sexijentziak*  
askatuz 20:00etan Lixioian.

## Nire aukera



Juanjo ELIZALDE USARRAGA  
Goizuetako gaztea

«Feria eguna bizi egin behar da,  
ezin da hitzez adierazi»

Bizitza alternatibo eta osasuntsuaren jarraitzailea» dela esanez aurkeztu du bere burua Juanjo Elizalde. Horregatik agian, Goizuetako gustuko txoko baten inguruan galdetuta, «Akola» aipatu du «erreka urdina eta gardena, egurrezko artza-in zubia, harkaitz sakonak, haritz ederrak, erdian ikatzuloa... Bertan naturaren partaide sentitzen zara». Lehenbiziko sektorean ari da lanean eta horrek bere buruaren jabe izateko aukera ematen diola dio «zure erara lan egiten ahal duzu, etxe inguruan, inork behartutako ordutegirik gabe». Badu ordea, alde txarra ere «baseritik bizitzeko gaur egun dagoen burokrazia neurritz kanpoko da. Denbora eta energia asko kentzen dizu, bat eta beste egin beharrak aisialdirako denbora gutxi uzten dizu». Horregatik, ahal duenean hartzen du tarte «lagunekin egon, kirola egin, irakurri edo yoga egiteko».

Egutegiari begira jarrita, gorri margotua du azaroaren 26a «feria eguna berezia izaten da». Antolakuntza lanetan aritzen da bera «aurretik bilerak egiten ditugu, ekitaldiak, parte hartzeak eta abar luze bat antolatu behar dira, batekin eta bestearekin egon... eta feria aurreko egunean «dena punttuan jarri behar da». Egun handia iritsitakoan ere izaten dute zeregina «aziendak herriratu, postuak lekuetan finkatu, trafikoa zuzendu... eskerrak jende askok parte hartzen dugun!». Etxeko aziendak ere plazaratzen ditu Juanjok eta aurtien estreinakoz arrautzeen postua ere jarriko du «bertan ekoiztutako produktua izan eta eguna hain berezia izanik, produktu horrek ere bere tokia merezi duelako. Gainera animatu egin naute eta nola ezetz esan!» dio irrika. Lana eta gozamina eskutik doaz beretzat «jende asko egoten da ferian eta oso entretenitua ibiltzen naiz. Goizeko lanak bukatuta, bazkal aurrean animaliak bildu eta bueltan mendira eramaten ditugu. Ondoren giro ederrean herri bazkaria frontoian eta azkenik gorputzak aguantatu arte parranda». Herritar zein bisitarien non gozatua izanen dute «aziendak, bertako produktuak, ekitaldiak, jendea... egun entretenitua eta politak dira, paregabeak!».

«Aziendak, bertako produktuak, ekitaldi asko, jendea... egun entretenitua eta politak dira, paregabeak!»

## Dantzak

BERA

### Dantza emanaldia

**Azaroaren 20an** *El cielo ahora*  
19:00etan Kultur Etxean.

## Ospakizunak

LESAKA

### Haurren Eguna

**Azaroaren 20an.**

## Bestak

AURTITZ

### Sanmartinak

**Azaroaren 10etik 13ra.**

ARANO

### Sanmartinak

**Azaroaren 12an.**

## Kontzertuak

ELIZONDO

### Folk Ametsetan

**Azaroaren 13an** Gozategi  
19:00etan Arizkunenean.

**Azaroaren 20an** Gani Mirzo  
19:00etan Arizkunenean.

### Santa Zezilia Eguna

**Azaroaren 22an** 17:00etan  
Musika Eskolan.

BERA

### Santa Zezilia Eguna

**Azaroaren 21ean** 18:00etan  
Musika Eskolan.

**Azaroaren 21ean** Murua eta  
Alvarez Zahar Etxean (17:00).

LESAKA

### Korrontzi Band

**Azaroaren 19an** 19:00etan  
eta 22:00etan udal frontoian.

### Santa Zezilia Egunaren harira

**Azaroaren 22an** Musika Eskolakoak  
Harriondoan (18:00).

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

### Mendigoizaleen irteerak

**Azaroaren 13an** Bankara,  
07:30ean abiatuta. **Azaroaren 20an** Auritzera (06:00).

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.** Pisuua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalera. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m<sup>2</sup>ko baxera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.500 euro. ☎646 774117.

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, lehenengo solairuan. Erdigunean, Altxate karrikatik hurbil. Guztiz berria, sukaldia estreintu gabea. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutxi ditu. 140.000 euro. ☎608 777926.

**SUNBILLA.** 92 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. ☎639 156105.

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**LESKA.** Logelak errentan emateko, astelehenera ortziralera, irailetik aurrera. Bakoitza bere komunarekin, telebista eta sukaldia erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

**LESKA.** 3 logelako pisua errentan emateko, mobleztatua. ☎639 855284 / 636 116021.

**ALMUÑECAR,** Granadako kosta tropikala. Hondartzako lehen leerroan apartotela errentan emateko. Terraza, bista zoragarriak, igerilekua, hagitz ongi hornitua. Abenduan, 1 etik



15era eta 15etik 30era. ☎658 943702.

**BERA.** hegoalde 33, 1B pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, sukaldia eta egongelarekin. ☎605 864355.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

**BERA.** Pisua errentan hartu nahi dute 2 neska arduratsuk, mobleztatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (20:00etatik aitzinera).

**ELIZONDO.** Pisua errentan hartu nahi da. ☎604 243558.

**ESKULDEAN** etxea edo baserria errantant hartuko nuke. ☎678 099422.

**LOKALAK**  
salgai

**DONEZTEBE.** Ameztiak karrikan lokal komertzialak

la salgai. 98 m<sup>2</sup> ditu, azulejatua dago eta bainugela dauka. Erakusleio handia eta argitsua. Interesatuek deitu. ☎606 585163.

**LOKALAK**  
errentan emateko

**BERA.** Auzoa ostatu-jatetxea errentan emateko. ☎605 864355.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**IGANTZI.** 19.000 m<sup>2</sup>ko lur zatia salgai, borda batekin eta herritik hurbil. ☎650 831395 / 662 386899.

**SUNBILLA.** 21.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai, nekazaritzako tresnak gordetzeko biltegi tiki bat egiteko baimenarekin. 12.000 euro. ☎650 395477.

**ZERBITZUAK**

zurgindegiak

**ARANTZA**  
Zurgindegiak.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Jose Miguel Errandonea  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gorritibaitea - ARANTZA

**LANA**

eskaintzak

**On-line lanean aritzeko** zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

**URDAZUBI.** Montxo ostatuan zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat dakiena. ☎948 599039.

**URDAZUBI.** Montxo ostatuan esperientzia duen eskaldaria behar da. ☎948 599039.

**BERA.** Katakua herri ostatu kudeatzeko lantalde eskalduna behar da. Interesa baduzu eta baldintzak ezagutu nahi badituzu, idatzi *katakua@mail@gmail.com*.

**Adineko pertsona bat zaintzeko** pertsona bat behar dugu. ☎630 947524.

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatetxean zerbitzaria behar da egunez lan egiteko. Frantsesetik jarkitea eta esperientzia izatea beharrezkoak dira. ☎948 599146 / 948 599009.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(urriaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 36 €

**Zerri gizena**  
1,180 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,710 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,16

**1.koa** 3,93  
**2.koa** 3,75

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,24  
**1.koa** 3,97  
**2.koa** 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,05/3,15  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,90/8,90  
8-10 kilokoak: 7,00/7,40



**LANA**

**eskariak**

**ELIZONDO edo INGU-  
RUAN.** Neska gazte bat lan bila. Adineko pertsonak interna moduan edo orduka zaintzen, konpainia lanetan edota garbiketalanetan interesatua. ☎631 039914.

**Adineko pertsonak zaintzen** esperientziadun emakumea eskainitzen da adinekoak zaintzeko orduka edo interna bezala edota garbiketalanetan aritzeko. ☎631 631036.

**ELIZONDO eta INGU-  
RUAN** lan bila. Haurrak zaintzen, adinekoak (interna edo orduka) edota garbiketalanetan interesatua. ☎632 434985.

Ostalaritzan, adinekoak zaintzen eta garbiketalanetan esperientziadun **emakumea lan bila.** Interna moduan adinekoak zaintzen bereziki interesatua, haurrak zaintzen edota garbiketalanetan. ☎631 341849.

**Emakumea lan bila.** Adinekoak zaintzen interna bezala edo orduka, garbiketala edota sukaldari bezala interesatua. Esperientziarekin eta arduratsua. ☎635 296717.

**BAZTAN eta INGURU-  
AN** mutila lan bila. Nekazaritzan eta abeltzaintza lanetan esperientziaduna. Ganaduarekin, nekazari, adinekoak edo haurrak zaintzen... edozerlan lan bila. Ikasteko trebea. ☎610 989163.

**ELIZONDO eta INGU-  
RUAN** lan bila. Haurrak zaintzeko, adinekoak zaintzeko orduka edo interna moduan eta garbiketalanetan interesatua. Esperientzia haurrak zaintzen. ☎602 419047.

**BERA.** Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke: haurrak zaintzen, garbiketala... ☎686 947418.

**Interna moduan adinekoak zaintzen** lan egitea interesatuko litzaidake. ☎694 409424.

**MOTORRAK**

**salgai**

**Discovery Sport 2.2 sd4** HSE salgai, 190cv automatic, diesela, 2015eko maiatzekoa. Egoera ezin hobean eta extra guztiekin. Larruzko eserlekuak (grained, Ebony), karga barrera, aurreko eserlekuak berogailuarekin, ilundutako kristalak, ordezeko gurpila neurri konpletoa, Black pack llantak (19"), eskiak eramateko kit konpletoa eta bazterreko barrak. 43.500 euro. ☎609 402229.



**Honda Accord** autoa salgai. Hagitz egoera onean. 115.000 km. Gasolina. ITV heldu den urteko apirila bitarte, 950 euro. Etorri eta probatu!! ☎680 343337.



**Mercedes Vito 110D furgoneta** salgai.

1998koa. 265.000km. Txoferra +7 eserleku. Fidakarra. Gogorra. Ona. Haurrak maite ditu. Etxean batek baino gehiagok negar eginen du 5.000 eurotan salduko dudala jakitean. ☎696 721575.

**MOTORRAK**

**tailerrak**



**ANIMALIAK**

**denetarik**

**SARA.** ardi bazkak saltzeko, urritik maiatza arte, 50 antxurentzat. Arratsetan deitu, 8etatik goiti ☎(0033) 559 542337.

**ALKAIAGA.** 5 ahuntz desagertu dira Pilarika Egunean. 4 azpigorri eta 1 beltza. Norbaitek ikusi baditu dei dezala. ☎607 827309.

**ANIMALIAK**

**oparitzeko**

**Pastor aleman arrazako zortzi urteko zakurra** oparitzeko, zain-

tzaile ona, pedigria. Ezin delako atenditu oparitu nahi da. ☎686 923350.



**Hiru urteko zakur arra** oparitzeko, **Labrador** arazakoa. ☎606 882545.



**ANIMALIAK**

**salgai**

**33 ardi buru gorri** salgai, hilabete honetan erditzeko, eta **7 artantxu.** ☎948 634118.

**DENETARIK**

**salerosketak**

**Bodart & Gonay lurreko sua salgai.** Horman



txertatzekoa eta aireztapenarekin. 1068x668 neurrikoa eta 14 kw potentzia. Prezioa 1.000€. ☎948 610961.


**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 m luze, borobila. ☎948 585036.

**Bigarren eskuko bizikleta estatikoa** nahi nuke. ☎637 265587.

**Burdin urtuzko tximena** salgai, bere altzari metaliko apaingarriarekin. Prezioa adostuko dugu. ☎699 116595.



**EGUTEGI PERTSONALIZATUAK**

**Paretan jartzekoak**  
Kontsultatu neurriak, hilabeteak ilargiekin, euskaraz, elebitan...

**Mahai gaineko egutegiak**  
Modelo ugari aukeran, trokelatuak, paper edo PCVzkoak

**Posterrak**  
Neurri handikoak: A1, A2, A3.  
Paper lodian

**Sakelekoak**  
55x85 mm.  
66x96 mm.  
Izkin borobilduak



Koskontako bidea, 7 - Lesaka  
T. 948 63 54 58  
www.kulturkari.com  
kulturkari@ttipi.eus



**Eskatu aurrekontua!**



# urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Goizuetako **IREBER INDAKOETXEA MENDIZURI** gure etxeko erregeak 5 urte bete ditu azaroaren 7an. Muxu zaparrada llargi, aita, ama eta Goizuetak, Hernani eta Usurbilgo familiaren partetik. Zorionak Ireber!



Sunbillako **XUBAN JAUREGI GARTIXTORENAK** 6 urte bete ditu urriaren 28an. Urte askoz Doneztebeko familia eta bereziki Hegoi eta Aimarren partetik.



**JOSE MARI PETIRENA** eta **JOSE MARI LASAGA** beratarrek urteak bete dituzte azaroaren 1ean. Zorionak santu guztien partetik eta agur!



Zorionak Goizuetako **JOAN OLAIZOLARI**. Muxu eta besarkada bat etxeko partetik eta bereziki zure anaia Irairen partetik.



Aurtizko **LEIANE ALTZURI MINDEGIAK** azaroaren 22an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta bortz muxu haundi etxeko printzesari. Ongi pasa eguna eta berendu goxoa prestatu zure lagunei eta familiari. Besarkada haundi bat bereziki zure ahizpa Naikairren partetik.



Aurtizko **PAKITAK** azaroaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak amaxi eta berendu goxo-goxoa prestatu! Muxu handi bat familia guztia partetik eta bereziki Leiane, Naikari eta Xabaten partetik.



**AIMAR BERTIZ BAZEK** 3 urte bete zituen urriaren 22an. Egun ederra pasa genuen zure kontura, morroxo. Zorionak! Urrozko eta Sunbillako familia.



**AINHUA GOIENETXE ZUBIETA** Lesakako nexka bihurritxo honek 3 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak eta ongi-ongi pasa!! Muxu haundi bat familia guztia partetik, bereziki Aiora eta Olaia partetik.



**BEÑAT UGARTE** arantzarrak urte bat beteko du azaroaren 28an. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat etxeko partetik.



**ADUR** eta **ONATZ AROZENA ELRIK** 3 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko bihurri!! Ongi ongi pasa eguna eta ez ahaztu pastela prestatzeaz. Hiru muxu potolo familiaren partetik.



Sunbillako **JONE BERTIZ ARIZTEGI!!!** Zorionak azaroaren 1ean 3 urte bete dituzalako!!! Muxu handi eta potolo bat Sunbillako eta Etxalarko familiaren partetik, baina bereziki, Ekiñe ahizpa eta Joanes, Urki eta Haritz lehengusuen partetik!!!!




Berako **NAHIA GOMEZ RIBEIROK** 4 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak ataxo, amaxo, ataxi, amaxi, osaba eta izebaren partetik.



Zorionak **ARATZ** eta ongi pasa eguna! Bost urte beteta hurrengoan palomita gehiago erosi beharko ditugu! Lepotik helduta tori 5 muxu goxo!



**OIER ALZUGUREN BARBERENARI** aunitz urtez morroxo! Egun eder bat pasatzea opa datzugu, Berako eta Zigaurreko familiaren partetik! Bazkari goxo bat prestatu, agertuko gara eta! Bortz muxu haundi!



Lesakako **JULEN CANAL ARTOLAK** 5 urte bete berri ditu urriaren 28an. Zorionak maiz!! Gizontxo bat egina zaude!!! Jarraitu orain bezain jator!!! Muxu handi handi bat zure familia guztia partetik!!!



**OIHAN** eta **NAHIA PIKABEA ELIAK** azaroaren 4an 10 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko partetik.



**ARITZ IPARRAGIRRE ALBERDI** arantzarrak 5 urte bete ditu azaroaren 3an. Zorionak gure etxeko gizontxoari!!! Muxu pila pila Arantzako eta Oretako familiaren partetik, eta bereziki ataxto, amaxto eta Oierren partetik!



Urdazubiko **MARIA LUIXA ZALDAINENAK** urteak beteko ditu azaroaren 13an. Zorionak! Eta muxu erraldoi bat amaxi, zure biloba Pablo Irazoki, zure senarra eta Alizia alabaren partetik.

# erran

## Mendialdeko Albisteak

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

**ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK**



- Albisteak
- Agenda
- Komunitatea
- Xorroxin online
- Eguraldia
- Merkatu Itikia
- Urtebetetzeak
- Bideoak
- Galeria

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN



- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin



## ttipi txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus



# ZOZKETAK

Zubietako ostatua - 2 otordu  
Felix Sarratea Mitxelorena | SUNBILLA  
Zugaramurdiko lezeak - 2 sarrera  
Felix Iparragirre Uskoz | ARANTZA  
Camelot Park - 2 sarrera  
Ana Agirre Azkarraga | DONEZTEBE  
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera  
Josefina Ariztia Etxeberria | DONAMARIA  
Onddo ta punto | Kamiseta bat  
Julio Nieto Baranda | ARESO  
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera  
Luis Torres Irungarai | ELBETE  
Erein argitaletxea - Liburu bat  
Kristina Urrutia Juanikorena | ANIZ  
Erein argitaletxea - Liburu bat  
Juan Jose Petrirena Irazoki | IRUNA

**673.**  
aleko  
irabazleak



LOTE BAT  
**MARTIKO**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



**ARKUPE**  
Gozotegia · Txokolategia  
TXOKOLATE LOTE BAT  
**ARKUPE GOZOTEGIA**  
[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)



**2 tiket**  
ARROIL AQUAPARK NATURALA  
**BKZ ABENTURA**  
[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



GONBIDAPENAK  
**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)

**2 sarrera**  
Heldu bat eta gazte bat



KAMISETA BAT  
**BUATXABAL**  
[www.buatxabal.eu](http://www.buatxabal.eu)

**BUATXABAL**  
Basque Clothing Co.



2 SARRERA  
**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**2 sarrera**

## LIBURUAK



- Itzalak bizi diren lurraldea  
Alberto Ladron Arana  
- Maitagarria eta desioa  
Mariasun Landa

**elkar**  
[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

## DES KON TUAK %

**FISIOETXEA**  
Ane Egizabal Llata  
Fisioterapeuta

LEITZA | %10, 10 saiko bonoan

Ostargi optika

BERA | %5, produktu guztietan

**jaione** tindategia

DONEZTEBE | %10, 12etik gora

Maria Cruz

DONEZTEBE/ELIZONDO  
%10, 30etik gora

**Alustiza**

DONEZTEBE | %10, 30etik gora

**MAIMUR**

LEITZA | %10, oparitzeko artikuluetan



# OLUR

ELIZONDO | BAZTAN

## AZAROAK 26



24:00

**KEN ZAZPI**  
**PHOENICOPERUS**

**DJ OIHAN VEGA**

SARRERAK SALGAI: SOBRINO TABERNAN ETA TRINKETEAN (ELIZONDO), EL INFIERNITO (IRUÑA): 15€+GASTUAK 0.50€. TAKILLAN 18 €.

## ABENDUA

01:00 LOS TENANPA



+ DJ NASH

**25**

01:00  
DJ JOTATXO  
DJ NASH +

**31**

02:00  
DJ ENCARA

\* SARRERAK 10€ + KONSUMIZIOA

## URTARRILAK 5



01:00  
**DJ OIHAN VEGA**

SARRERAK 10€ + KONSUMIZIOA